EZTABAIDA: ZABOR-EDUKIONTZI BERRIAK EZTABAIDAGAI /7
KIROLA: GORLAKO IGOERA JOKATUKO DA MARTITZENEAN /11

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2002ko martxoaren 15a • III. urtea • 57. zenbakia • Doa

Goienka2a
Sexualitatea eta hezkuntza: bi berbaldi, gazteak hezten ikasteko

Barruan, zure herriko aldizkaria

NERE INDA

"Euskal komunitateak indar handia dauka Idahoko Estatuko gizartean" **/8-9**

IBAN ARANTZABAL

Debagoieneko enpresek harrera ona izan dute Makina-Erremintako Bienalean.

MAKINA-ERREMINTAKO BIENALA BILBOKO ERAKUSTAZOKAN

Ibarreko hamahiru enpresa bienalean

- *Bilboko bienalean mundu osoko enpresen makinak daude ikusgai*
- *Antolatzaileek 55.000 bisita izatea espero dute*
- *Bilbon antolatzen duten azken bienala izango da aurtengoa*
- *Bi urte barru, Barakaldon egingo dute bienala*

Astelehenean inauguratu zuen lehendakariak Bilboko Nazioarteko Makina-Erremintako Bienala. Zapatu arte izango da zabalik.

Hogeita bigarren erakustaldi honetan 1.760 enpresa ari dira parte hartzen, 630 erakusmahai edo postutan banatuta. Erakusteko den azalera osoa 42.382 metro koadrokoa da; hau da, Bilboko Nazioarteko Erakustazokako zortzi pabilioiak erabiltzen ari dira. Mundu osoko 34 herrialdetako enpresak etorri dira. Espainiatik, Madrilgo, Kataluniako eta Valentziako parte hartzaileak daude bienalean. Azokan Debagoieneko enpresak ere badira, 13, hain justu. Kooperatibak, sozietate anonimoak, sozietate mugatuak... Txikiak eta handiagoak... Denetarik dago. Guztien berri emango dizuegu ale honetan. /2-3

ULMA C. y E. KOOPERATIBAK ERE BAIETZA EMAN DU

MCCn sartzeari baietza eman diote ULMAko lau kooperatibek

- *ULMA C. y E. Kooperatibako langileen %81, alde*
- *Langileek Kontseilu Errektoreen asmoak berretsi egin dituzte*

Oñatiko ULMA Kooperatiba Elkarteak MCCn sartzeari baietza eman dio. Hori erabaki dute ULMA taldea osatzen duten lau kooperatibetako langileek.

Horretarako, baina, bi batzar orokor berezi egin behar izan dituzte. Azkena atzo egin zuten ULMA C. y E. Kooperatibako langileek. Izan ere, taldeko beste hiru kooperatibek baietza emana zuten otsailaren 15ean egin zuten ezohiko batzar orokorrean. Orduan, ULMA C. y E. Kooperatibako langileak MCCn sartzearen aurka agertu ziren; hain justu ere, aldeko 308 boto zenbatu zituzten eta kontrako 398.

Atzo (eguena) arratsaldean Zubikoa kiroldegian egin zuten batzarrean, ostera, 666 boto izan ziren alde eta 156 aurka; hau da, ULMA C. y E. Kooperatibako langileen %81 MCCn sartzearen alde agertu ziren. Langileen onarpena jaso ondoren, MCCn sartzeko prozesuak aurrera jarraitzen du. Laster, ULMA taldeko konpromisarioek batzar orokorra egingo dute, behin betiko onartzeko.

Azken emaitzak

Kooperatiba	Bai	Ez
ULMA C. y E.	666	156
Enara	84	34
Oinkar	77	13
H. Polimero	77	14
Guztira	**904**	**217**

Giokela, Okela garbia Muturretik Buztanera
Giokela, Berme Osoko Okela
Giokela, Kalitatezko Okela

OÑATI
Txantxiku

ANTZUOLA
J. Mujika

BERGARA
Urcelay
J. Leturia
L. M. Rezola

ARRASATE
J. Elortza
J.R. Otamendi
Salaberria
Agirre- Etxe

Ez guk, Certicar-ek ziurtatua

Giokela
GURE KALITATEA
Zer jan, hura izan.

HERRIZ HERRI/4-5 • IRITZIA/6-7 • KIROLA/10-11 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2002ko martxoaren 15a

Makina-erreminta

Debagoieneko hamahiru enpresa izan dira oraingo astean Bilboko Makina-Erremintako Bienalean

ENEKO AZKARATE / LEIRE KORTABARRIA

Astelehenean inauguratu zuen lehendakariak Bilboko Nazioarteko Makina-Erremintako Bienala. Eta inaugurazio ekitaldian hiru gauza azpimarratu zituzten han batutakoek. Batetik, Iranen hegazkin istripuan hildako Fagor Arrasateko lau langileak gogoan izan zituzten, besteak beste, Fagor Arrasate bienaleko "ohiko" bat dateta. Bestetik, krisia. Iazko udatik gainbeheran ari da ekonomia eta hori igartzen dute makina-erremintaren alorrean dihardutenek. Edozelan ere, aurten, makina-erreminta eskaria %24 igoko dela aurreratu zuen lehendakariak. Azkenik, erakustazoka tokiz aldatuko dutela ziurtatu zuten antolatzaileek. Horrela, hurrengo bienala Barakaldon egingo dute.

Makina-erremintako alorrak berebiziko garrantzia dauka Euskal Herriko ekonomian. Alemaniaren eta Italiaren ondoren, Europako indartsuena da. Espainiako Estatuko makina-erreminta enpresen hirutik bi Euskal Autonomia Erkidegoan daude, eta horietako asko Debarroan, Elgoibar inguruan, batez ere.

Edozelan ere, gurean ere badira. Hamahiru, hain justu. Batzuk txikiagoak, familiarrak; beste batzuk, handiagoak. Hemen batu ditugu. Azpimarratzekoa da orain dela bi urteko bienalean Mondragoeko Gamei enpresak diseinu onenaren saria jaso zuela.

ORAIN ARTEKOAK
Bost hamarkada, gero eta arrakastatsuago

Bilboko Nazioarteko Erakustazokak eta Espainiako Makina-Erreminta Egileen Elkarteak sortu zuten erakusketa hori 60ko hamarkadaren hasieran. Gaur egun, munduan egiten diren mota horretako zazpi azoka garrantzitsuenen artean dago. Goranzko bilakaera horri esker, aurten, iaz baino parte hartzaile gehiago izan dira. Aurten, enpresa gehienak Europako Batasunekoak izan dira: parte hartzaileen %45.

PARTE HARTZEA
Enpresa kopurua, pabilioiak, azalera...

Hogeita bigarren erakustaldi honetan 1.760 enpresa ari dira parte hartzen, 630 erakustoki edo postutan banatuta. Erakusteko den azalera osoa 42.382 metro koadrokoa da; hau da, Bilboko Nazioarteko Erakustazokako zortzi pabilioiak erabiltzen ari dira. Mundu osoko 34 herrialdetako enpresak etorri dira. Espainiatik, Madrilgo, Kataluniako eta Valentziako parte hartzaileak daude bienalean.

BAIKORTASUNA
Makina-erreminta eskaria igo egin da

Ekonomia gainbehera betebetean zegoela hasi genuen urtea; makina-erremintaren eskariak %3 egin zuen behera. Baina urte hasieratik hona, eskariak %24ko gorakada izan du, eta horrek, Juan Jose Ibarretxe lehendakariak inaugurazio ekitaldian esan zuenez, "suspertze ekonomikoa" iragartzen du. Antolatzaileek azken azokako arrakasta gainditzea espero dute.

ETORKIZUNA
Bilbon azkeneko aldiz egingo dute bienala

Makina-Erremintaren Nazioarteko Bienala hogeita bigarren eta azkeneko aldiz egin da aurten Bilbon; 2004tik aurrera, Barakaldon egingo dute. Hango erakustazokak zazpi pabilioi izango ditu, eta azalera erabilgarria 117.700 metro koadrokoa izango da; hau da, Bilboko erakustazokan baino %40 azalera erabilgarri gehiago du; hortaz, egokiagoa izango da.

EUSKARA NAGUSI
Euskaraz hartu gaituzte ia guztiek

Debagoieneko hamahiru enpresa izan dira aurten Bilboko Makina-Erremintako Bienalean. Eguaztenean izan ginen han. Ibarreko enpresen erakustokiak banan-banan bisitatu genituen. Arduradunekin berba egiteko aukera izan genuen, eta ustekabe atsegina izan genuen. Bitan izan ezik, gainerako 11 erakusmahaietan euskaraz hartu gintuzten. Euskal Herrian daude estatuko makina-erreminta enpresa gehienak. Horietako asko, gugandik gertu, Debabarrenean. Gehienak enpresa txikiak dira, euskaldunek sortu eta kudeatutakoak. Hori argi antzematen da azokatik buelta bat emanez gero. Hortaz, euskara eta makina-erreminta eskutik doaz.

ZAPATURA ARTE
Goizeko hamarretatik zazpiak arte zabalik

Astelehenean zabaldu zituen ateak erakusketa azokak eta zapatura arte egongo da zabalik. Ordutegia honakoa da: 10:00etatik 19:00etara. Sei egun irauten du, hortaz, azokak; baina prestaketa lanek, askoz ere gehiago. Horrelako azoketan parte hartzen duten enpresek —makinak bertara eroaten dituztenek, behinik behin— gutxienez hilabete ematen dute prestaketa lanetan. Antolatzaileekin harremanetan ipini, erakustokiaren planoak aztertu, makinak garraiatu, muntatu, desmuntatu... Asko izaten da egiteko. Ikusgarriak ei dira azokaren aurreko eta ondorengo egunak. Kamioiak, garabiak... jo eta ke ibiltzen dira lanean. Sekulako zoramena izaten ei da han inguruan.

ARGAZKIAK: IBAN ARANTZABAL

FAGOR ARRASATE / Arrasate Fagor Arrasatek ez du makinarik eroan azokara. Panelen, bideoen, argazkien eta ordenagailuen bitartez eskaintzen du informazioa. Automobilaren eta elektragailuen sektorean eta siderurgian egiten du lan, batik bat, Fagor Arrasatek. %60tik gora kanpoan saltzen du enpresa horrek.

Ez baduzu inoiz Stressless® bat probatu, ez dakizu zer den atseden hartzeaz gozatzea. Stressless®-ko besaulkien eta sofen gamak, bere teknologia aurreratuari esker, zuk behar duzun erosotasun plusa eskaintzen dizu. Eta hamar urteko bermea duen Plus Sistema™ sistema esklusiboarekin. Ekornes®-ko Stressless-ek bakarrik eskainiko dizu hori guztia, eta, beste inor bezala, zure mugimenduei egokituko da. Zure morfologiari. Zure estiloari. Baita dekorazioari ere.

* Stressless®, Ekornes® talde norvegiarraren marka erregistratua da.

Zatoz eta ikus ezazu Stressless® Confort Gunea kontzesionario ofizialean:

Noche y Dia
Morfeoren besoetan
Atseden Etxea
Adriano VI, 17 • GASTEIZ
Tel./Faxa: 945 21 42 24

EKORNES®



FAGOR AUTOMATION / Arrasate Fresatzeko makinendako eta tornuendako kontrol numerikoak, erreguladoreak, motorrak eta erregelak egiten dituzte, batik bat. Eta eskoletarako kontrol numerikoa egiten dute, euskarazko bertsio eta guzti. Argazkian, Anton Sagasta.



GAMEI / Arrasate Prentsak, altzairua ebakitzeko makinak... egiten ditu tradizio handiko enpresa horrek. Bilboko azokako aurreko aldian, diseinuaren saria eman zioten horietako makina bati. Hemen eta nazioartean, erdi eta erdi saltzen dute. Argazkian, Jose Luis Mendizabal.

GOIHATA / Arrasate Enpresa berezi samarra da hori, zerbitzuen enpresa, hain justu. Batetik, Japoniatik esportatu eta, bestetik, hemengo enpresei Japonian saltzen laguntzea da zeregin nagusia. Lehenengo aldia da Bilboko azokan erakusten dutena. Argazkian, Sonia Morales.



LASA / Arrasate Txapa mozteko makinak, prentsari txapa zuzentzeko eta alimentatzeko makinak... egiten dituzte. Telemantenua egiteko sistema berria dute ikusgai azokan. Batez ere, barruko merkatuan saltzen dituzte eurek diseinatu eta fabrikatutako makinak. Argazkian, Felix Zabaleta.

ORNI / Bergara Bukaerako makinak egiten dituzte 45 langileko enpresa horretan: lixatzeko, leuntzeko, higatzeko... Orain, ostera, plegatuetan aplikatzeko makina robotizatua sortu dute eta horixe da Orniren aurtengo izarra. Argazkian, Iñaki Alberdi.

SORALUCE / Bergara Azokan dituzten hiru makinetatik berriena da aeronautikako aplikazioetarako erabiltzen den abiadura handikoa. Hannover-en aurkeztu zuten iaz, irailean; baita arrakasta handia lortu ere. Soraluzek %90 kanpoan saltzen du; gehien, Alemanian.

TECHNOSYSTEM / Bergara Elektroerosiorako makinekin lan egiteko materialak eta periferikoak erabiltzen dituzte. Alemaniatik inportatzen dituzte makinak, gero Euskal Herrian eta Espainian saltzeko. 13 lagunek dihardute. Argazkian, Asier Agirrebeña.

LANTEK / Aretxabaleta 1986an sortutako enpresa da eta orain dela hilebete batzuk Miñaoko Teknologia Parkera eroan zuten. Txapa ebakitzeko (laserra, ura...) propio sortutako programa informatikoa garatu dute, eta horixe dute erakusgai azokan. Argazkian, Joseba Montoia.

BALZERS-ELAY / Antzuola Erreminten estaldura da Balzers-Elay-ren produktu nagusia, eta horixe azpimarratu gura izan dute azokan. Enpresa multinazionala da eta, horregatik, Antzuolako lantegiak, batez ere, Espainian saltzen du. Argazkian, Juan Carlos Zengotitabengoa.

GOIZPER / Antzuola Prentsarako balazta-enbrage berria egin dute; lehenagokoa baino ezaugarri hobeak ditu, bai eta potentzia handiagoa ere, eta horixe jarri dute azokan ikusgai. Makina egileak dira Goizperreko bezero nagusiak. Batez ere, Espainian saltzen dute. Argazkian, Javier Urarte.

LAIBE / Elgeta Atzerrian makinak erosi eta hemengo merkatuan komertzializatu, makinak berritu eta mantentze lanak egin; horiek dira 20 bat langileko enpresa horren hiru negozioak. Burdina eta altzairua mozteko makinak dituzte ikusgai azokan. Argazkian, Luis Alberdi.

SISTECO / Elgeta Duela hiru urte sortutako enpresa. *Sinico* marka italiarraren makina bat, hodiak manipulatzen dituena, da azokan ikusgai duten izarra. Makinak kanpoan erosi, muntatu eta asistentzia teknikoa eskaintzen dute, batik bat. Argazkian, Jon Beretxinaga eta Pilar Jauregi.

Oñatiko Artzain Eskolaren ikasturte amaiera ekitaldia izan da Arantzazun

Artzain ikasketak egin dituzte hamabost lagunek, Gomistegi baserrian

SAIOA OJANGUREN

Oñatiko Artzain Eskolako ikasleek bukatu dute ikasturtea. Eguaztenean egin zuten ikasturte bukaerako ekitaldia, Arantzazun. Artzain Eskolaren helburua da ikasleak trebatzea haran nahiz mendi aldeko larreen erabileran, kudeaketan eta ustiapenean.

Guztira 15 ikaslek gainditu dute aurten ikasturtea. Horietatik, gehienak gipuzkoarrak dira, baina arabarrik eta bizkaitarrik ere izan da tartean. Horiekin batera, Txileko lagun batek ere ikasi du aurten artzaintza Debagoienean. 24 urteko gaztea, Javier Hidalgo, izan da atzerritik Oñatira ikasketak egitera etorri den bakarra.

Eguazteneko ikasturte amaiera ekitaldian, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza sailburu Gonzalo Sáenz de Samaniego, Eusko Jaurlaritzako Landa Garapenerako sailburu Ibon Mandaluniz eta Ander Manterola enologoa izan ziren. Horiekin batera, Mendikoi elkarteko ordezkari Batis Otagei eta Oñatiko Artzain Eskolako zuzendari Nikolas Segurola. Angel Iturbe Oñatiko alkatea ere ekitaldian izan zen.

Bosgarren ikastaroa izan da aurtengoa. Eta aurreko urteetan moduan, aurten ere, Arantzazuko Gomistegi baserrian egin dute. Ikastaroa irailean hasi zen, eta sei hilabete iraun du. Zortzi aste teorikoak izan dira eta gainerako 14 asteak, berriz, praktikak egiteko erabili dituzte ikasleek. Hain justu, ardi-aziendetako profesionalen ustiategietan egin dituzte praktikak.

Aurtengo ikasturtearen oso balorazio positiboa egin zuten eguaztenean Artzain Eskolako ikasleek bai eta irakasleek ere. Gomistegiko baserrian hirurogeita lau artzainek ikasi dute bost urteotan.

SAIOA OJANGUREN

Artzain Eskolako bosgarren promoziokoek diplomak jaso zituzten eguaztenean.

BAILARANLABUR

Erabilitako pilak jasotzeko ontziak jarriko ditu Mankomunitateak pila-saltokietan

Gaur egun, pila-ontzietan batzen dira erabilitako pilak. Ontzi horiek papera batzeko kalean dauden edukiontzi urdinei erantsitako armairuak dira. Baina pilak batzeko sistema horrek pila-ontzien mantentze eta huste lanetarako arazoak sortzen ditu. Hortaz, oraingo astetik aurrera, kaleko pila-ontzi horiek kentzen hasiko dira. Aurrerantzean, pilak aparte batzeko edukiontzi txiki batzuk jarriko dituzte pilak saltzen diren dendetan. Eta Mankomunitateko langileek jasoko dituzte pilok dendetatik. /E.A.

A-1 autobideko Bergaratik Eibarrerako zatiko hiru tunelak zulatu dituzte

Joan den astean amaitu zituzten Eibar-Gasteiz autobideko Eitzako tunelak zulatzeko lanak, bakoitza 700 metrokoa. Bi tunelok Soraluzen daude. Horrenbestez, Bergaratik Maltzagarinoko lau tunelak —beste biak, Lezarrikoa eta Gallastegikoa— zulatu dituzte. /E.A.

Mundukideren Truke Programa dela-eta etorri diren 13 lagunek Fagor bisitatu dute

Fagor Elektratresnak lantegia bisitatu zuten eguaztenean Mundukideren Truke Programa dela-eta munduko bazter askotatik etorri diren 13 lagunek. Kooperatiba horren 46 urteotako esperientzia azaldu zien enpresaburu Jabier Gantxegik. /E.A.

Import Arrasate enpresaren Ternua markak sari berezia jaso du Alemanian

Arrantzaleendako garatu duen salbamendu sistema bereziarengatik

E.A.

Import Arrasate enpresaren Ternua markak Ispo Outdoor Award 2002 saria jaso du, Salbamendu Sistemaren kontzeptuagatik, Municheko kirolaren nazioarteko azokan. Ternuak Hardware mailan jaso du sari hori. Nazioarteko epaimahaiak mundu osoko izen handiko 65 enpresak aurkeztu dituzten proiektu berritzaileak aztertu ditu. Arropa eta salbamendurako sistema hori euskal arrantzaleendako garatu du Import Arrasatek.

IMPORT ARRASATE

Saritutako sistemako arropak.

Proiektu hori Eusko Jaurlaritzaren eskaera bati erantzunez bultzatu du Import Arrasatek. Bestalde, Galiziako eta Irlandako gobernuekin harremanetan jarri da Arrasateko enpresa. Izan ere, Europako gobernuak oso jabetuta daude itsasoan segurtasunak duen garrantziarekin.

Segurtasunezko Nabigazio Sistema berritzaile horrek salbamendu-jaka eta arropa sistema hartzen ditu bere gain: jaka, petoa eta salbamendu-jaka, hain justu ere.

TESA inauguratu zuen Ibarretxek

Juan Jose Ibarretxe lehendakariak Eskoriatzako TESA lantegiaren eraikin berria inauguratu zuen eguaztenean. Eraikin berriak 10.000 metro koadro ditu. Eskoriatzako lantegian 185 langile dabiltza, eta 800 baino langile gehiago ditu beste lantegi batzuetan. Talleres de Eskoriatza SA Gipuzkoako lehen bost industria enpresen artean dago eta erkidegoko 25 lehenengoen artean. Segurtasun sistemen eta sarrailen alorrean liderra da Europan. Assa Abloy Suediako taldeko kide da TESA. Datozen hiru urteotan, 24 milioi euro inbertituko ditu. /E.A.

Hemen GARBIKETAK
Garbiketetan profesionalak gara
943 71 48 45
607 94 89 84

Oi-LVR
Atseden Etxea
Deba (Gipuzkoa)
Tel.: 943 58 30 16
Zure ASTE SANTUKO OPORRAK gozatu eta bizi izan nahi baduituzu, zatoz!
• Laztanen tailerra: masaje sentsitiboari esker, gune eta momentu atsegingarriak sortzen ditugu. Gure helburua da norberaren oztopoak ezabatu eta berezkotasuna ateratzea.
• Naturaz gozatzeko irteerak
• Elikadura garbigarria eta energetikoa
Koordinatzailea: Garbiñe Aranguren (Psikologo humanista).

Gaueko Batxilergoa Arrasaten
Arrasate Aretxabaleta INSTITUTUA
Santa Teresa, 25 • ARRASATE
943 79 44 47- 943 79 83 00
Gaueko Batxilergoa egiteko interesa baduzu, etor zaitez gure bulegora, apirilaren 30a baino lehenago. Animatu zaitez!
Bulego ordutegia: 09:00etatik 17:00etara



• OKINDEGIA
• DASTATEGIA
• ERRETEGIA
ERROTA
Goizeko 07:30etatik gaueko 21:30etara zabalik
Inaugurazioa martxoaren 21ean arratsaldeko 18:30etan

ARAMAIO

Aramaioarrak, laugarren eta seigarren bertso txapelketan

Andere Arriolabengoa laugarren geratu zen joan den asteburuko bertsolari txapelketako kanporaketan. Lierni Altunak, berriz, seigarren postua eskuratu zuen. Anderek adierazi digunez, "ez dut uste hurrengo txanpara pasatuko garenik, baina nik, behintzat, jendearen aurrean abesten gozatu dut, aspaldiko partez".

Datorren zapatuan, martxoaren 23an, aramaioarren arreta osoa Manex Agirrerendako izango da. Lapuebla de Labarcan beste bost bertsolarirekin batera lehiatuko da Manex. /U.M.



UBANE MADERA

ARRASATE

Oniritzia eman eta finantzaketa bideak topatuz gero, argazkian ikusten den modukoa izango da Arrasateko Industria Museoa

Arrasateko Industria Museoaren proiektua egina dago. Are gehiago, Peña Gantxegi Arkitektuek museoaren maketa ere egin dute. Orain, proiektua garatu ahal izateko diru iturriak topatu behar ditu Arrasateko Udalak. Izan ere, aurreikuspenen arabera, zazpi milioi euro behar dira museoa eraikitzeko (1.240 milioi pezeta). Enplegu eta Garapen Ekonomikoko batzordeburu Juan Ramon Garaik esan digunez, erakunde publikoetara jotzeaz gain, erakunde pribatuetara jotzea aztertzen ari da Udala. Enpresarekin lotutako ekimen pribatuak ditu buruan: Garaia, Mondragon Unibertsitatea, eta antzekoak. Baina Garaik gaineratu duenez, haiengana jo aurretik, Udalak ere zenbat diru ipiniko duen erabaki behar du, eta hori ere zehazteko dago. / UBANE MADERA

ARETXABALETA

Automobilen abiada murrizteko bandak jarri ditu Udalak Araba ibilbidean

Oraingo astean, autoen abiadura murrizteko lau banda jarri dituzte Udaleko langileek Araba ibilbidean. Helburua da bide zuzen horretan autoek lasterketarik ez egitea. Izan ere, udaltzaingoaren esanetan, Araba ibilbidean autoak sekulako abiaduran ibiltzen ei dira. Baina ez kale horretan bakarrik; izan ere, Santa Kurtz kalean ere, segurtasunerako neurriak hartu gura ditu Udalak, eta laster jarriko ditu mota bereko bandak.

Jarritako banda bakoitzak 1.200 euro inguru balio du. /AMAGOIA LASAGABASTER

ANTZUOLA

Zaborra biltzeko egunak aldatu egin ditu Debagoieneko Mankomunitateak

Domekatik aurrera, martxoaren 17tik, hain zuzen ere, Debagoieneko Mankomunitateak zaborra batzeko egunak aldatu egingo ditu Antzuolan.

Aurrerantzean, astelehenetan, eguaztenetan eta egubakoitzetan pasatuko dira zaborra jasotzera. Horren arrazoia da kamioi berezi batek batuko duela zaborra ibarreko herri guztietan, eta ibilbidea berrantolatu beharra izan dutela.

Gogoratu behar da otsail amaieran Mankomunitatearen esku geratu zela edukiontzien mantentze-lana. /AINTZANE IRIZAR

OÑATI

San Lorentzo auzoko umeendako jolasparkea kendu egingo du Udalak

San Lorentzoko goiko aldeko plazatxoan dagoen umeendako jolasparkea kentzea erabaki du Udalak. Behin baino gehiagotan agertu dute hango bizilagun batzuek euren kexa, eta jolastokia kentzeko eskatu.

Bizilagunen esanetan, alde batetik, etxebizitzetatik gertuegi dago jolasparkea eta umeen zaratak asko entzuten dituzte etxeetan. Bestetik, parkean jarritako gomazko lurzoruak arazoak sortu dizkie; izan ere, euria egiten duenean, gomazko lurzoruaren azpian pilatzen da ura eta ez da lurruntzen; horrela, azpian dauden garajeetara sartzen da goma azpian geratzen den ura.

Dena dela, argi laga nahi izan dute bizilagunek umeek jolaslekuak edukitzearen aldekoak direla, baina euren ustez, toki egokiagoa bilatu beharko luke Udalak. Proposamen bat ere egin dute, gainera, San Lorentzoko bizilagun horiek: euren ustez, jolasparkea kentzea erabaki zuten. Orain, jolasparkea jartzeko toki egokiena topatu gura du Udalak, eta hori aztertzen dihardu.

ANTENEN AZTERKETA

Moiua kalean eta Berezao auzoan dauden telefonia mugikorreko antenen esposizio erradioelektrikoaren azterketak egitea eskatu zion Udalak CYS enpresari. Otsailaren 25ean egin zituzten neurketok, eta emaitzen zain dago orain Udala. /AINTZANE IRIZAR

Zertzelada

Umeendako jolasparkeak gomazko lurzorua dauka; lurzoruaren azpian pilatzen den ura ez da lurruntzen, eta, azpiko garajeetara sartzen da.

BERGARA

Hasi dira Oxirondo plaza egiten Santa Marina parrokiaren ondoan

Dagoeneko hasi dira Santa Marina parrokiaren osteko obrak. Helburua da orube hori txukundu eta plazatxo bat egitea: Oxirondo plaza, hain justu ere.

Plazak betekizun bikoitza izango du: batetik, aisialdigunea izango da. Bestetik, zapatu goizetako azoka han jarriko dute plaza eraiki ondoren.

Hori kontuan izanda, zorua konpontzeaz gain, eserlekuak, zuhaitzak eta iturria jarriko dituzte. Bestalde, erreka kontran, 24 metro luze izango den aterpea jarriko dute. Aterpe horretan jarlekuak egongo dira, astean barrena herritarrek erabil ditzaten, eta zapatuetan, berriz, azokako merkatariek. /M.B.

MONIKA BELASTEGI

Aisialdigune eta zapatu goizetako azokako kokaleku izango da.

ESKORIATZA

Udalaren izenean diru eskean ari diren lagunekin argi ibili behar da

Udalak aditzera eman duenez, bai Aretxabaletan bai Bergara aldean, Eskoriatzako Udalaren zigilua duen paper batekin bosniarren alde diru eskean dabiltza lagun batzuk.

Bosniarrak datozela berriro eta dirua behar dutela esanez ari dira lagun horiek. Bide batez, Udalaren izena daraman agiri bat erakusten dute, baina agiria ez da benetakoa. Eskoriatzako Udala arduratuta azaldu da bere izena erabiliz iruzurrean ari direlako hainbat lagun. Kontuz, beraz, diru eskean dabiltzanekin. /MIRARI ALTUBE

ELGETA

Martxoaren 20an Kirola Euskaraz-ko fitxa didaktikoak aurkeztuko dituzte

Eguerdiko hamabietan egingo dute aurkezpena, herriko udaletxean. Hantxe izango dira, besteak beste, Gipuzkoako Euskara zuzendari Lore Leanizbarrutia, Mankomunitateko Kirol batzordeko arduradun Patxi Basauri eta bekadunak.

Aurkeztuko diren bekak aerobiceko eta prestaketa fisikoko fitxa didaktikoak izango dira. Aurkezpenarekin, duela bi urte Kirola Euskaraz Programaren barruan kaleratutako bekei amaiera emango diote. /OXEL EROSTARBE

LEINTZ GATZAGA

Udalak adostasun osoz onartu ditu oraingo urteko aurrekontuak

Guztira 457.073 euro izango ditu Gatzagako udalak behar dituen premiei aurre egiteko (75 milioi pezeta).Udalbatza osatzen duten alkatea eta sei zinegotziak abendu inguruan hasi ziren 2002ko ekitaldirako aurrekontuak aztertzen, eta joan den astean, aho batez onartu zituzten aurrekontuok. 116.020 euroko kopurua inbertsioetarako izango da. Museoa, denda eta Turismo Bulegoa egokitzeko eta herriko azpiegituretarako aurrez ikusi dira diru partida handienak. /A.G.

Zabalik

DIEGO MARTIARTU

Errukiaz

Zutabe honi zerk edo nork jarriko gaia buruan bueltaka ibili nuen bi egunean, eta hara, gutxien espero nuenean, atzo tabernan Aitor nire lagunak kontatu zidana: joan da Aitor Barakaldoko Max Center-era eta aguretxo bat ikusi ei du hango denda ugarien artean dagoen barruti zabaleko jarleku baten eserita. Agurea bakarrik dago, gaban luze baten biltzen du bere gorputz hezurtsua, eskuak belaunetan bermaturik, lurrera josita begiak.

- Kontua da -Aitor *dixit*- jarleku hartan behera begira zegoen agureari ibilian nindoala erreparatu niola, eta beragandik zenbat eta hurbilago, orduan eta arreta handiagoa jartzen ari nintzaiola. Ez dakit, bazegoen zeozer tipo harengan hunkitu egin ninduena, eta benetan, lepoa jokatuko nuke gizarajo hura izorratuta zegoela, benetan izorratuta. Bere paretik igaro nintzenean, burua goratu eta begiratu egin zidan, eta sinets egidazu, bion begiradak gurutzatu ziren unean, airean txinpart ttipi bat atera zelakoan nago, eta bihotzean ziztada zorrotz bat sentitu nuen. Hau dena pauso bat luzatzeak irauten duen tarte ezdeusean gertatu zen. Ondoren, nire oinak gelditu egin ziren, eskua poltsikoan sartu eta 2 euroko txanpona hartuta inguratu nintzen gabanean uzkurtzen zen zilueta errukarrirantz. "To", luzatu nion txanpona. Eta egin banuen egin nuen, ederra egin ere! Txanponarekin ikusi ninduenean, irestu batek jota bezala egin zuen atzerantz berak. Beldurrak, amorruak eta lotsak ixotutako sua hartu zuten haren begiek, eta orduantxe konturatu nintzen aguretxo hura ez zela eskalea. Ze trantze bortitza, ze lazgarria! Autoa hartu, etxera heldu eta oheratu arteko onik ez nuen izan. Nori otu zitzaion errukia sentimentu nobletzat jotzea?

Eta hau benetako egia izan zan, ez sartu gero kalabazan!

Gutunak

Ofizialtasunaren alde!

Hizkuntza eskubideen urraketa sistematikoa, euskalgintzan ez ezik, gizartean ere hedatua dagoen errealitate bat da. Egun Euskal Herria zatitzen duen marko juridiko-politikoaren mugak eta topeak gero eta nabarmenagoak direla esan dezakegu. Esate baterako, justizia edo osasun administrazioen egoerek lege babes falta argia adierazten dute; Nafarroako Gobernuak, alde ezberdinetatik salaketak jaso arren, ordenamendu juridikoa du bere politika aurrera eramateko armarik onena; Frantziako estatuak zenbait iragarpen egin arren, iparraldeko belaunaldi berriak eskolatik erdaldun irteten dira…

Honi guztiari estatuen jarrera erasokor eta euskalgintzaren kriminalizazioa gehitzen badiogu, euskararen etorkizunak euskararen lurralde osoa hartuko duen estatus juridiko–politiko baten beharra agerian uzten du.

Hizkuntza eskubideen berma eskatzen ari gara eta herrietan ekintza ugari egin izan diren arren, ez da nahikoa; "hizkuntza eskubideak eta ofizialtasuna" aldarrikatzeko mobilizatu beharra dagoela uste dugu. Horregatik, martxoaren 22an eta 23an mobilizazio egunak antolatu ditugu eta honen bidez herritar guztioi bertan parte hartzeko gonbitea egin dizuegu:

Martxoaren 22an, egubakoitzean, 19:00etan, Arrasateko Seber Altube plazan, kontzentrazioa; bitartean, muralak margotuko dira bertan. Martxoaren 23an, zapatuan, 12:00etan, Bergarako plazatik manifestazio bat abiatuko da.

Hizkuntza eskubideak borrokatuz, ofizialtasuna eskuratu!

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ
Arrasate

Mizpirualde Zaharren Egoitza dela eta

Zaharren Egoitzan egin berri diren berrikuntzak direla-eta; argitaratutako gutuna irakurrita, egoitza honetako Gobernu Batzordeak egoki ikusi du ondorengo oharrak argitaratzea:

Egindako obrekin hiru helburu lortu nahi ziren: lehenengoa, zentroa indarrean dagoen araudira egokitzea poliki-poliki; hau da, Eusko Jaurlaritzako 41/1998 Dekretuak dioenari egokitzea. Bigarrena, zerbitzu batzuen funtzionamendua hobetzea. Hirugarrena, beste premia batzuei erantzutea.

Eta, gainera, interes orokorra kontuan hartuta, hau da, egoitzan dauden 115 pertsonen premiak, gaur egunekoak eta baita etorkizunari begira aurreikusten direnak ere.

Hortaz, eta aipatutako Dekretuak dioenari kasu eginez, erizaintza zerbitzua eraldatu egin da eta lehen 12,25 metro karratu baldin bazituen, orain 64,75 metro dauzka (itxaron gela, erizainendako gela, medikuaren gela, biltegi txiki bat eta erizaintzako langileendako aldagela txiki bat).

Bestalde, beheko pisuko komunak —jangela nagusiaren ondokoak— handitu egin dira eta 6,5 metro koadro izatetik 15 metro koadro izatera pasatu dira.

Beheko pisuan, lehen ez zegoen gela bat sortu da, 27,60 metro koadrokoa erretzen ez dutenendako, eta solairu honetara ekarri da kafetegia ere. Kafetegiak lehen 54 metro koadro zituen eta orain 52,25 metro koadro ditu. Solairu honetan daude baita errehabilitazio gela, telebista gela kapera moduan ere erabiltzen dena (eta erabilera bultzatu nahiko litzatekeena), ile apaindegia, eta abar, eta solairu honetara ekarri da baita eskulanen tailerra ere. Osasun zerbitzuak eta aisialdikoak edo sozialak eta administratiboak bertan batzearekin, hobeto orientatzen da egoiliarra, eta horrela, denon lana erraztu egiten da.

Hori dela eta ekarri dira bulegoak ere beheko solairu honetara; gainera, tokia handitu zaion atezaintzako zerbitzukoek ere partehartze aktiboa izan behar baitute lan administratiboetan. Hortaz, zentroaren administrazioa beheko solairuan jarri da eta zentroko ikuskatzailearendako gela bat ere egokitu da, orain arte zentroko superiorak hutsik lagatako gela erabiltzen zuen-eta.

Azkenik, langileendako jangela bat egin da eta aldagelendako lekua handitu egin da.

Hori dena kontuan hartuta, egoitza honetako Gobernu Batzordeak pentsatzen du jakinezaren ondorioz —alde batetik logikoa ere bai, urteko 365 egunetan eta eguneko 24 ordutan funtzionatzen duen mota honetako zentro baten beharrak noizean behin zentrora etortzen direnek baloratzea zaila baita—, informazio oso mugatua eta errealitatearekin bat ez datorrena zabaldu dela komunikabideetan.

Interesatuek emandako informazioaren arabera, ulertzen da liburutegia eta ondoko bi gelak tokiz aldatu direla edo horietarako sarbidea aldatu egin dela, eta hori ez da inondik nora horrela, gela horiek lehengo toki berean baitaude eta egoiliarrendako zabalik.

Egoiliar batzuk paretari begira jarrita egoten direla kritikatzen da, baina ez da esaten egoiliar batzuek zergatik aukeratu duten gune hori eta ez liburutegia. Aipatutako jardueretan 27.000.000 pezeta inguru erabili izana ere kritikatu egin da, baina ez dira aipatzen erizaintza-gela berria, erretzaile ez direnendako gela, bi terraza berri erabil daitezkeela, jarri diren altzari berriak, eta abar; azken finean, ez dira aipatzen egindako jarduera orokorrak.

Aldi berean, esaten da egoiliarrek igogailua erabili behar dutela jangelara joateko, eta horrek ere erakusten digu baieztapen horiek egin dituztenen ezjakintasuna; izan ere, jakin beharko lukete igogailuen bidez aurre egiten zaiela oztopo arkitektonikoei eta baita, egoitza honetan aipatutako jangelaz gain —bereziki egoiliarren artean gaitasun gehien dutenek erabiltzen dutena gainera—, badirela beste bi jangela beste solairuetan.

Aipatu dira, baita ere, oztopo arkitektonikoak, toki murrizketak eta egoiliarren bizi kalitatean atzera egin dela.

Jarduera horien guztien bidez, orain arte lekaimeek erabiltzen zituzten gelak ere egokitu egin dira, eta toki horiek egoiliar gehiago hartzeko erabil zitezkeen, baina lehen zeuden plazak mantendu eta zerbitzuak hobetzea eta gune berriak sortzea erabaki zen.

Egon diren atxikimenduei buruz —50 familiar, hain zuzen ere—, batzorde honek herritarrei jakinarazi nahi die denak ere 22 bat egoiliarren familiartekoak direla.

Azkenik, Gobernu Batzordeak jakinarazten du azaldutakoarekin dena argi uzten duela eta horregatik gai honetaz ez duela gehiago esango, eta bide batez zentroa ikusi nahi duten guztiei gonbidapena egiten zaie.

VICTORIANO GALLASTEGI ALTUBE
(MIZPIRUALDE ZAHARREN EGOITZAKO GOBERNU BATZORDEKO LEHENDAKARIA)
Bergara

Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



Eztabaida

Azken asteotan, bolo-bolo dabil herritarren artean zaborra batzeko edukiontzi berrien kontua. Toki larregi hartzen dutela, oztopo bihurtu direla, kalea zatartu egiten dutela, aparkatzeko tokia kentzen dutela... Aldaketa guztiek dituzte alde onak eta alde txarrak. Aurrerantzean, behintzat, ez dugu zaborpoltsarik kalean ikusiko eta, ondo erabiliz gero, hau da, egun eta ordu jakinetan ateratzen badugu zaborra, ez ei da usain txarrik sortuko. Baina, zaborra batzeko modu hori lehenagokoa baino hobea ala txarragoa da?

Zaborrak batzeko oraingo modua lehegoa baino hobea ala txarragoa da?

Zalantza barik, zerbitzu hobea eskaintzen da orain

ARANTZAZU URIBESALGO
Mankomunitateko teknikaria

Debagoieneko Mankomunitateak dauka gure ibarrean zaborra batzeko zerbitzua kontratatzeko ardura. Debagoieneko udal guztien arazoa da zaborrarena eta horri ahalik eta irtenbide egokiena emateko, ahalik eta zerbitzu onena kontratatzen ahalegintzen da Mankomunitatea.

Oraingo zerbitzua berria da. Lehen, Debagoieneko ia herri eta auzo guztietan, zabor poltsak, egun eta jakin batzuetan, lurrean uzten ziren. Zer gertatzen zen? Batetik, animaliek —txakurrek eta katuek batez ere— zabor poltsok apurtzeko eta zaborra kalean sakabanatuta geratzeko arriskua zegoela. Orain, ordea, jarri ditugun zabor-edukiontziekin, zabor poltsak ez dira kalean lagatzen eta, ondorioz, animaliek ezin ditzakete poltsok apurtu. Bestetik, esango nuke sistema berria askoz ere estetikoagoa dela, zabor poltsak kalean ikusi ordez, edukiontzietan daudelako.

Azpimarratzeko beste kontu bat da sistema berri honekin, zabor poltsak edozein egun eta ordutan utz ditzakegula edukiontzietan. Azken finean, egun guztietan daude edukiontziak kalean eta ez egun jakin batzuetan. Hala ere, edukiontziak hustu eta zaborrak batzera, oraingo moduan, egun eta ordu jakinetan pasatzen jarraituko da. Horregatik, gomendagarria da herritarrek lehengo ohiturei eutsi diezaietela, zerbitzu garbiagoa eskaini eta usain txarrak ekiditze aldera. Edozelan ere, edukiontziok hiru astetik behin garbituko dira.

Esan behar da gaur egun ia inon ez direla zabor poltsak kalean lagatzen. Toki guztietan aukeratu dute edukiontzien sistema, hobea eta garbiagoa delakoan. Egia da kalean tokia hartzen dutela eta akaso traba apur bat ere egiten dutela hainbat tokitan, baina zerbitzua hobetzen bada, gaitzerdi. Ohituko garela uste dut.

Badira zaborra batzeko beste modu batzuk ere; lur azpikoa, esaterako. Elorrion erabiltzen dute. Baina lur azpiko edukiontziak lixibarekin garbitu ahal izateko, hodi egokiak beharko genituzke eta hori oso garestia da, eta obra handia eskatzen du.

"Orain, zabor poltsak ez dira kalean lagatzen eta animaliek ezin ditzakete poltsok apurtu"

Gu gustura geunden lehengo bilketa moduarekin

JABIER ETXEBARRIETA
Aretxabaletako zinegotzia

Mankomunitatean zabor bilketa zerbitzua aldatzeko eztabaidatan genbiltzanean, Aretxabaletako ordezkariok geure iritzia eman genuen. Aretxabaletan gustura geunden lehengo zabor bilketa moduarekin. Zergatik? Batez ere, hiru arrazoirengatik:

Batetik, zabor poltsak oso denbora gutxian egoten zirelako kalean. Kamioia pasatu behar zen egunean bertan, iluntze aldera, ateratzen zen zaborra kalera eta, beraz, pare bat ordu-edo baino ez zen zaborra kalean egoten.

Bestetik, oso toki gutxi hartzen zuten zabor poltsek kalean —orain jarri dituzten zaborrendako edukiontziek baino askoz ere toki gutxiago, behinik behin. Gainera, oso samurra zen garbiketa lana. Kalea berehala geratzen zen garbituta.

Lehengo moduaren alde egitearen hirugarren arrazoia aparkalekuena zen. Modu berri honekin, aparkatzeko toki gutxiago geratzen da, nahiz eta ahalegindu espaloi gainean jartzen eta ahalik eta aparkaleku gutxien kentzen. Baina edukiontziak hor, egun guztian, daude kalean eta hori oztopo bat da, bai oinezkoendako eta baita aparkalekuak kentzen direlako.

Hori esanda, aipatu behar da gu ez gaudela zaborra batzeko edukiontzien sistema honen aurka. Gainerako herriak sistema berriaren alde agertu badira, aurrera. Bestalde, sistema berri honek baditu bere gauza onak ere, hori ez dugu ukatuko: esaterako, ez da txarra zabor poltsa guztiak, kalean egon beharrean, edukiontzi baten barruan egotea, bai garbitasunaren aldetik eta baita paisajearen aldetik begiratuta.

Horretaz gain, garbi dago sistema berri honekin zaborra batzen duten langileen lan baldintzak hobetu egiten direla...

Beharbada, egokiena eta onena izango litzateke lur azpiko edukiontzien sistemarantz joatea, baina hori zailagoa da, inbertsio handiagoa eskatzen duelako. Baina, zeinek daki, beharbada, berandu baino lehen sistema modu hori helduko zaigu Debagoienera ere.

"Modu berri honekin, aparkatzeko toki gutxiago geratzen da, ontziak egun guztian daudelako"

DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA — Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

Zer iritzi duzu trafiko lege berria zorrotzagoa izateari buruz?

Gora eta Behera

HEZKUNTZA LEGEAREN AURKAKO KALE BILKURAK

Irakaskuntzaren Kalitatearen legearen aurka egin diren kale bilkurek argi erakutsi dute irakasleria, eta batez ere ikasleria, ez dagoela lo. Pilar del Castillok esnarazi ei ditu. Hezkuntza sistema hobetu beharra dagoela argi dago, baina errebalida edo azterketa gehiago jartzea, hau da, bazterkeria bultzatzea, ez da bidea.

BERGARAKO IGERILEKUETAKO PROIEKTU BERRIA

Agorrosingo igerilekuak zaharkituta geratu dira. Eta eraberritze lanak beharrezkoak dira. Baina proiektu berrian igerileku olinpikorik ez aurrez ikustea ez da egokia, besteak beste, hainbatero igeri txapelketak antolatzen direlako.

ANSELMO VEGA
Angiozarko Eskolako irakaslea

Koplak

Kontenedoreak?

Zer iruditzen jarri dituzten
kontenedore berdeak?
Lehengo sistema ez zen onena,
hauek ez dira hobeak...

Non jarriko ta, jarri dituzte
bidegurutze ertzetan,
justu bidea garbi ikusi
behar den puntu horietan.

Ta ezin jakin zein tramankulu
etorri leiken bidean,
egunen baten kotxeren batek
eramango nau aidean.

Eta eskaintzen den zerbitzua
ez al daiteke hobetu?
Astean hiru alditan barik
egunean behin hutsitu.

Zaila den arren, Atxabaltako
bi kaleetan galtzea:
gure auzotik jada birritan
ahaztu zaie pasatzea.

Baina zaborren kudeatzaileek
ez daukate erru dana,
kaleak garbi mantentzea be
bada herriaren lana.

SAIOA ARANDO

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
ADMINISTRAZIOA Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK Goio Arana (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea)
PUBLIZITATEA Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín, Imanol Elortza
PRODUKZIOA Iban Arantzabal
TESTUEN ZUZENKETA Sergio Azkarate, Gari Bragado
HARPIDETZA ETA BANAKETA Julen Aranguren

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2002ko martxoaren 15a

Nere Inda

IDAHON BIZI DEN IRAKASLE ARRASATEARRA

“Idahoko Estatuak txosten bat onartzea Euskal Herriaren autodeterminazioaren gainean hango euskaldunek egin dezaketen guztia da. Eta asko da”

Oraingo astean albiste izan da Ameriketako Estatu Batuetako Idaho Estatua. Hango senatuak Euskal Herriari autodeterminazio eskubidea aitortzen dion adierazpena onartu du. Erabaki horrek hainbat bazter harrotu ditu. Boise da Idahoko hiriburua, eta han bizi da Nere Inda, 27 urteko irakasle mondragoetarra. Harekin berba egiteko aukera izan zuten martitzenean Arrasate Irratiko Maria Agirrek eta Aitziber Aranburuzabalak. Solasaldia jaso dugu.

GOIENKARIA

Idahoko Senatuaren batzordean onartu egin da ‘Bieter proposamena’, aldaketa batzuekin. Zer da, zehatz-mehatz, Idahon onartu duzuena?

Bueno, atzo (astelehena) onartu zuten Idahoko Senatuen batzordean proposamen hori, baina oraindik, aste honetan, egubakoitza baino lehen, onartu egin behar da Ameriketako Estatu Batuen senatuen beste batzorde baten; hau da, 63 senatuk aztertu eta eztabaidatu behar dute proposamen hori eta hemen erabakiko dute aurrera edo atzera egiten duen proposamenak. Hortaz, oraindik ez da guztia bukatu. Baiezkoa bada, orduan bidaliko dute onartutako txostena Washingtonera. Juan Carlos erregeari beste txosten bat bidaliko diote, beste bat Aznarri...

Esan egiguzu, zer dio ‘Bieter proposamenak’, bada?

Batez ere, eta funtsean, Idahoko Estatua Euskal Herriaren autodeterminazioaren alde agertzen da. Hasiera baten ez zen ETAren aipamenik egiten. Txostenean esaten zen autodeterminazioaren aldeko bidea egiteko, lehenbizi, biolentzia mota guztiak gelditu egin behar zirela. Baina ez zen zehazten zer biolentzia motari buruz ari ziren, ETArena edo Frantziako eta Espainiako estatuena. Martxoaren 8an, berriz, Ordezkarien Ganberako Osoko Bilkurak erabaki behar zuen txostenarekin aurrera egin edo ez. Batzarra eguerdian egitekoa zen, baina goizean barrena Espainiako enbaxadoreak, Rupérez jaunak, deitu egin ei zion Pete Cenarrusari, esanez ez zekitela oso ondo zeri buruz ari ziren eta zer zen onartu nahi zutena, hau da, Euskal Herriko gatazka politikoaren gainean oso ondo informatuta ez zeudela. Bueno, bada, Pete Cenarrusak ahoa isilarazi zion Rupérez jaunari, esanez norbaitek Euskal Herriko gatazka politikoaren berri jakin nahi izanez gero, badaukala aukera: Interneten bidez, egunkarien bidez... Eta orduan, telefonoa eskegi egin zion. Eta Rupérez jauna, izututa-edo, Washingtonera deika hasi zen. Eta han, Barne Seguritateak presio handia egin du. Esan behar da Barne Seguritateak indar handia duela, batez ere, irailaren 11ko atentatuen ondoren. Erakunde horrek deitu ei zion Pete Cenarrusari eta senatuko buruari, esanez txosten hori zehatzago aztertu behar zela eta ezin zela egubakoitzean, martxoaren 8an, onartu. Presio hori dela eta, egubakoitzean, eztabaida gogorra izan zen Idahoko senatuan. Batzuek zioten txostena egubakoitzean bertan onartu behar zela eta senatuaren buruak, ostera, ezetz, astelehenera arte ez zela erabakiko. Eztabaida gogor eta sutsua izan zen, ni neu hantxe egon nintzen eta bertatik bertara jarraitu nuen eztabaida.

Azkenean, baina, astelehenean onartu dute proposamenoi. Baina zer onartu dute? Hemen axola zaigu Euskal Herria egunotan hizpide izan dela Amerikako Estatu Batuetako Idahon.

Batetik, biolentzia geldiaraztea, batez ere, ETAk geldi dezala bere ekimen armatua. Bestalde, Bake Prozesua abiaraztea, eta, azkenik, Euskal Herriari autodeterminazio eskubidea aitortzea.

Eta zergatik sortu da Euskal Herriaren inguruko eztabaida une honetan Idahon?

Hemen, euskal komunitatearen ordezkaritza handia dago. Orain dela urte asko, artzain euskaldun ugari etorri zen hona. Egia da komunitate minoritarioa dela, baina era berean, indar handia dauka Idahoko gizartean. Hemengo askok eta askok harremana dute euskal kulturarekin, eta euskal ohiturari eta kulturari eusten diote. Saiatzen dira Euskal Herriarekin harremanei eusten. Bietertarrak, esaterako, orain dela 30 bat urte Oñatira joan ziren. Ama euskalduna zuten eta aita irlandarra, eta familia osoa Oñatira joan zen bisitari. Gero, berriz ere hona etorri ziren, eta hemen, familiako semeak-eta botere postuak hartuz joan ziren: bat epailea da, beste bat senataria... Epailea Errenteriako neska batekin ezkonduta dago... Esan nahi dut badutela euskararekiko grina berezia. Gauzak horrela, Dave Bieterrek txosten bat prestatu zuen. Hasieran, sinboliko samarra zen. “Guk zer egin dezakegu?” galdetzen zioten euren buruari. Eta horrela hasi zen kontu guztia. Egia esan, eurak ere harrituta daude kontu horrek guztiak izan duen oihartzunarekin. Orain dela egun batzuk, hemengo lagun batekin elkartu nintzen eta esaten zidan Idahoko senatuaren txosten horrek oihartzuna izan duela ez bakarrik Espainian edo Frantzian; Argentinatik, Australiatik eta beste toki batzuetatik posta elektroniko bidezko mezu ugari jaso dituzte, euskaldunek bidalitakoak: esaten dute han ere horrelako ekimenak bultzatuko dituztela, eta abar.

EUSKALDUNAK IDAHON

“Idahon euskal komunitatearen ordezkaritza handia dago. Egia da komunitate minoritarioa dela, baina era berean, indar handia dauka Idahoko gizartean”

SENATUEN BATZORDEAREN ERABAKIA

“Oso emozionatuta daude, batez ere, euskararen eta euskal kulturaren alde egin dezaketen guztia egiten ari direlako. Baina nahiko harrituta daude lortu den oihartzunarekin”

EUSKARA IRAKASTEN

“Hogei ume ditut eskolan eta horietatik, lauk baino ez dute egiten berba euskaraz etxean. Euskal kultura eta folklorea gordetzen dute, baina euskara falta zaie”

AUTODERMINAZIOA ETA INDEPENDENTZIA

“Hemengo egunkariek nahastu egin dituzte bi kontzeptuok. Eta Euskal Herria zer den, egoera zein den, eta abar azaltzeko, ahalegin berezia egin da oraingo egunotan Boise-n”

Zelan bizi da Boise-n, kalean, kontu hori guztia?

Interes handia dago. Kapitoliora jende asko joan da eta euskal komunitatean, behintzat, oso emozionatuta daude, batez ere, euskararen eta euskal kulturaren alde egin dezaketen guztia egiten ari direlako. Nahiko harrituta daude kontu horrek izan duen oihartzunarekin. Badira zuhurragoak edo ez hain optimistak direnak ere.

Argi dago, behinik behin, Idahon bizi diren euskal jatorrikoek ez dutela Euskal Herria ahazten.

Bai, bai, bai, hori hala da. Gauza asko egiten dute euskal kultura gordetzeko eta bultzatzeko.

Gerta liteke, baina, hasierako zalaparta horren ostean kontua apur bat hoztu eta albo batera geratzea, ezta?

Bai. Dave Bieterrek eta Pete Cenarrusak egin zezaketen guztia egin dute. Ezin dezakete gehiago egin. Orduan, Idahoko Estatuak txosten bat onartzea Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidearen alde, bada, asko da. Ezin dezakete gehiago egin.

Edozelan ere, ez da gutxi lortutakoa. Kontuak kontu, Nere, politika ikastaro azkar batzuk ere eman behar izan dituzte han, Idahon, autodeterminazioa eta independentzia moduko kontzeptuak zer diren senatariei azaltzeko, ezta?

Bai. Hemengo egunkariek nahastu egin dituzte bi kontzeptuok. Eta Euskal Herria zer den, egoera zein den, eta abar azaltzeko, ahalegin berezia egin da oraingo egunotan Boise-n. Baina hori normala da. Konturatu behar gara euskaldunak ez garela Idahoko jaun eta jabe, baizik eta komunitate minoritarioa garela. Hemen, esaterako, ez dute ulertzen zelan Euskal Herriak lau probintzia dituen Espainian eta beste hiru Frantzian, eta zelan hiru probintziak euskal gobernua aukeratzen duten eta laugarren batek ez. Guretako ulertzeko hain erraza dena hemen ez dute hain erraz ulertzen, eta hemengo senatariei hori azaltzea nahiko zaila izan da.

Zu zeu irakasle zara Boise-n, ume txikien irakasle. Zure ikasleei ez diezu Euskal Herriaren gatazka azalduko, baina akaso haien gurasoei bai, ezta?

Boise-ko ikastolako guraso gehienak oso sartuta daude euskal komunitatean. Orduan, gehienak Kapitoliora joan dira. Badakite zeri buruz eztabaidatu duten senatariek. Oso gertutik jarraitu dute dena.

Azaldu egiguzu, zer egiten du arrasatear batek Idahon?

Hemen badago Haur Hezkuntzako ikastola bat. Hiru uretik bost urtera arteko umeak etortzen dira eskolara.

Eta euskaraz irakasten diezu?

Bai, bai, euskara hutsean. Ni abuztuan etorri nintzen hona. Abuztu amaieran hasten da ikasturtea hemen. Eta nire ingeles maila hutsaren hurrengoa da. Niri oso ondo etorri zait ingelesa ikasteko; izan ere, hemen oso familia gutxik egiten dute euskaraz. Hogei ume ditut eskolan eta horietatik, lauk baino ez dute egiten berba euskaraz etxean. Euskal kultura eta folklorea gordetzen dute, baina euskara falta zaie.

Badakigu ume horiek ederki babesten zaituztela. Ingelesez ondo moldatzen ez zarenez, lagundu egiten dizutela.

Bai, batzuetan liburutegira edo beste nonbaitera irteten gara. Hemen denek egiten dute ingelesez, normala den moduan. Orduan, behin, liburutegira joan ginen eta han mapamundi handi bat, esfera bat zegoen. Eta umeak hasi ziren: "Hemen dago Boise, baina non dago Euskal Herria?". Orduan, etorri zen guregana liburutegiko arduraduna eta esan zidan: "Gura baduzu mapamundiak badauka argia. Ixotu argia eta hobeto ikusiko duzue". Jakina, ingelesez berba egin zidan. Orduan, bi mutikok esan zioten liburutegiko arduradunari: "Gure andereñoak ez daki ingelesez, itxoin, itzuli egin behar diogu". Itzuli egin zidaten euskarara liburutegiko arduradunak esandakoa eta galdetu zidaten: "Ixotuko dugu argia? Bai? Bada, zu trankil, e? Guk esango diogu ingelesez, guk badakigu-eta".

"Euren arbasoei zor diete euskal kultura gorde izana"

Arraroa egiten zaigu jakitea Boise-n badagoela ikastola bat eta gaur egun badirela guraso batzuk euren seme-alabak ikastola horretara eroan nahi dituztenak. Zertarako nahi dute euren umeek hezkuntza euskaraz jasotzea?

Gehienbat, euren arbasoei zor dietelako. Oso harro daude euskaldun izateagatik. Eurendako oso garrantzitsua da euskaldun sentitzea. Badute nahiko azpiegitura euskal folklorea bultzatu eta gordetzeko, baina euskararekin harreman txikia dute. Hori dela eta, erabaki zuten ikastola sortzea. Beste alde batetik, esan behar da hemen, Ameriketako Estatu Batuetan, bost urtera arte ez direla umeak *school*-era joaten.

Ze adineko umeak dituzu zuk?

Hiru urtetik bost urtera bitartekoak. Gero, badaude beste lau ume sei urtekoak. Horiek lehenengo mailan daude. Baina ikastolatik ezin dira zuzenean lehen mailara joan. Orduan, *Kindergarten* deritzona egin behar dute, derrigorrez, pare bat orduan egunero. Badago mutiko bat *Kindergarten* horretan diharduena eta oraingo udan Arrasatera joateko asmoa duena. Bere birramona lekeitiarra da. Arrasaten ez dauka familiarik, baina nik esan nion udan bazeudela udalekuak, bazegoela Txatxilipurdi.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2002ko martxoaren 15a

Podiuma

Aitor Elkoro |PILOTARIA|

Eskuz banakako txapelketa aurkeztu zuten martitzenean Bilbon. Nobedade gisa, iazko sailkapena errespetatu egin da, eta zozketa bidez erabaki zen pilotari bakoitza zein multzotan arituko den. Aitor Elkoro elgetarrak (34 urte) 3. kanporaketan egingo du debuta, apirilaren 7an. Elkorok 1997ko finala jokatu zuen. Arretxeren aurka galdu zuen orduan. Hala ere, bere sasoirik onenean ez dagoela onartu digu. Lehenbizi, binakako partiduetan lehengo maila berreskuratzea du helburu.

ARTXIBOA

Elkorok apirilaren 7an egingo du debuta buruz buruko txapelketan.

Ilusionatuta eskuz banakako txapelketarako?

Egia esateko, ilusio berezirik ez daukat. Aurreko urteetan disgustu dezente hartu ditut, eta gero eta gehiago kostatzen zait eskuz banaka jokatzea. Azkenaldian ez dut maila onik eman binaka. Binakako partiduetan ondo ez banabil, zaila izango da eskuz banakakoan txapelketa ona egitea. Hala ere, behetik datorrenari irabazten saiatuko naiz eta ondoren ikusiko dugu Errastiri irabazteko gai naizen. Dena dela, ez dut prestaketa berezirik egingo buruz buruko txapelketarako. Eskuz banaka zerbait lortzeko nire garairik onena pasatuko zen, beharbada.

> "Azkenaldian ez dut maila onik eman binaka, eta ondo ez banabil, zaila izango da eskuz banakakoan txapelketa ona egitea"

> "Aurreko urteetan disgustu dezente hartu ditut. Eskuz banaka zerbait lortzeko nire garairik onena pasatuko zen, beharbada"

Dezepzionatuta binaka jokatutako txapelketarekin?

Banekien finalerdietarako sailkatzea zaila genuela Capellanek eta biok, baina lau partiduak galdu ditugu eta alde horretatik nahiko gogorra egin zaigu. Azkenaldian ez naiz kantxara lasai irteten, konfiantza txikiagoarekin nabil, agian kolpe pixka bat galdu dudalako.

Zer deritzozu buruz buruko txapelketako sistema berriari?

Ados nago, *ranking*-a errespetatu egin delako eta zozketa garbia izan delako. Uste dut sistema zuzenena hori dela. Urtero horrela izan beharko litzateke. Datorren urtean sistema berriro aldatzea ez litzateke logikoa izango.

Zeintzuk dira zuretako faborito nagusiak?

Betikoak. Denen gainetik Eugi eta Beloki daude. Barriola ere hor dago; lau t´erdikoa irabazi zuen eta joan den urteko eskuz banakako txapelketan finalerdietara iritsi zen. Gero baliteke norbaitek sorpresaren bat edo beste ematea. Dena dela, berdintasun handia dago eta hor ari garen 20 bat pilotarien arteko partiduetan edozeinek egin dezake aurrera.

Berraondo antzuolarra ere izango da txapelketan. Zer-nolako aukerak izan ditzake?

Imajinatzen dut ikaragarrizko ilusioa edukiko duela txapelketarako. Hala ere, eskuko minekin ei dabil azkenaldian eta ez dakit bere mailarik onena ematerik izango duen. Lehenbizi, Ariznabarretaren eta Esainen arteko irabazlearen aurka jokatuko du, eta gero Zearra izango du zain. Hark beste maila bat dauka. Bi partidu horiek irabaziko balitu, elkarren aurka jokatuko genuke.

EDU MENDIBIL

Bergarako eskubaloi taldea, txapeldun

Bergarako senior mailako eskubaloi taldeak Gipuzkoako Liga eskuratu zuen, domekan Arrasateri 21-28 irabazita. Edu Orgazek zuzentzen duen taldeak Bigarren Maila Nazionalera igotzeko fasea hasiko du aste bukaeran, Bilbon, Deustu-Loiola taldearen aurka, hain zuzen ere. Igoera fasean arituko diren sei taldeetatik, lehenbiziko biak igoko dira mailaz.

ATZOKO TXAPELDUNAK

Josean Olabarria
Futbolaria

Josean Olabarria, Realeko gazte taldearekin, Atotxan.

Realeko gazte taldean ibili zen.

Eibar, Touring, Urola eta Bergaran jokatu zuen.

Bergararekin 3. mailara igo zen.

Bergara KEko azpiko kategorietan ibili ondoren, 17 urte zituela Realak fitxatu zuen: "Rafa Mendiluze zen gazte taldeko entrenatzailea eta Espainiako Txapelketan finalerdietara iritsi ginen. Athletic eta Las Palmas kanporatu genituen, eta Bartzelonaren aurka galdu egin genuen". Mendiluze Gipuzkoako gazte taldeko hautatzailea genuen eta selekzioarekin ere jokatu zuen. Erdiko aurrelari gisa jokatzen zuen Joseanek, eta golegilea zen: "Errematatzailea baino gehiago, *oportunista* nintzen". Sanse taldearekin entrenatu zen hurrengo denboraldian, Expositorekin: "Oso entrenamendu gogorrak egiten zituen Expositok eta behin baino gehiagotan kale egiten genuen entrenamenduetara..." Olabarriak ez zuen Sanserekin jokatzerik izan eta Realarekin sinatutako bi urteak Eibar eta Touring taldeetan utzita eman zituen, 3. mailan. Eibarren, Alberto Ormaetxea izan zen bere entrenatzailea. Urolan beste denboraldi bat egin ondoren, Bergarara itzuli zen: "Bergararekin 3. mailara igotzea lortu genuen. Touring-en kontra jokatu genuen igoera. Han berdindu, eta Agorrosinen 2-1 irabazi genien. Lakuntzak eta biok sartu genituen golak. Orduko oso oroitzapen onak ditut. Taldeak maila ona zuen eta 3. mailan nahiko ondo ibili ginen". 27 urterekin erretiratu zen. /E. M.

"Bergararekin 3. mailara igotzea oso oroitzapen ona da"



Josean Olabarria • Bergara • 1956

BABESLEA

VENTANAS SAN MIGUEL

Iturriotz, 24 • 20500 ARRASATE
Tel.: **943 79 78 10**

Ibargarai, 4 • 20570 BERGARA
Tel.: **943 76 12 21**

Gorlako Igoera berritua, martitzenean

Aurten, ibilbide berria izango du Bergarako txirrindulari proba ospetsuak

Amateur mailako txirrindulari onenak elkartuko dira martitzenean, San Jose egunean, Gorlako Igoeran. Nobedade gisa, Bergarako proba ezagunak ibilbide berria estreinatuko du aurten. Txirrindulariek 90 kilometroko ibilbidea bete beharko dute martitzenean.

Gorlako Igoera 1975. urtean hasi zen jokatzen, eta amateurren egutegian izen handiko proba bilakatu da ordutik hona. Hala ere, antolatzaileen esanetan, partaidetzak behera egin du azken urteotan, eta hori zuzentze aldera, ibilbide berria prestatu dute aurtengorako. Gorlara igoera bakarra egin ordez, txirrindulariek 90 kilometroko ibilbidea izango dute. Bergaratik irtengo dira 10:00etan eta Eskoriatzarako bidea hartuko dute. Handik bueltan, Gorlara lehenbiziko igoera egingo dute, 43. kilometroan, hain zuzen. Azkoititik eta Urretxutik igaro ondoren, Deskargako gainari aurre egingo diote, 72. kilometroan, eta Antzuolatik Bergarara etorriko dira, Gorlako azken igoerari ekiteko. Proba 12:30ak aldera amaituko dela espero dute.

MIKEL LARRAÑAGA

Argazkian, joan den urteko Gorlako Igoerako irudi bat. Alberto Contador (Iberdrola) nagusitu zen iaz.

Urtero moduan, oso zaila da faboritoez berba egitea. Hala ere, domekan Lasarteko Klasikoan nagusitu zen Ricardo Serrano (Baque) eta Dioni Galparsoro (Caja Rural) aurrean ibil daitezke martitzeneko proban. Bestalde, ez da beteranoen probarik jokatuko, iaz oso partaidetza eskasa izan zelako.

EDU MENDIBIL

Kirolabur

ESKUBALOIA/ALOÑA

Aloña Mendiko senior eskubaloi taldeak 23na berdindu zuen Barakaldo liderraren aurka, zapatuan, Zubikoa kiroldegian. Liga amaitzeko lau jardunaldi besterik ez da falta, eta oñatiarrak bigarren dira sailkapenean. Barakaldo liderra puntu bakarrera dago. Igoera fasea jokatzeko, geratzen diren partiduetan gutxienez bi irabazi beharko dituzte Txus Aranbururen mutilek.

KROSA/DEBAGOIENA

Antonio Merino antzuolarra 31. sailkatu zen domekan Gasteizen jokatutako Espainiako Kros Txapelketan. Goierri taldeko atletak 12 kilometroko proban hartu zuen parte. Bestalde, Asier Cuevas bere taldekidea 72. iritsi zen helmugara.

SASKIBALOIA/ESKORIATZA

Eskoriatzako senior nesken saskibaloi taldea 49-35 nagusitu zitzaion zapatuan Tolosako Laskorain taldeari. Eskoriatzarrak hirugarren dira sailkapenean, eta Oriogi liderra baino lau puntu gutxiago dituzte. Edozelan ere, Eskoriatzak partidu bat gutxiago dauka, Bera Bera taldearen aurka galdutakoa, hain zuzen, errekurritu egin zuen-eta.

Maalako errebala 13
943 79 92 76

OKENDO KIROLAK

ARRASATE

Otalora Lizentziaduna 24 • ARRASATE • 943 79 83 66

AZUL de RIZOS PELUQUEROS

AZUL
DE RIZO'S
PELUQUEROS

Ile apaindegi berria Arrasaten!

Inaugurazioa martxoaren 20an arratsaldeko 19:00etan



Utziguzu zure estiloa sortzen

AZUL ile apaindegian, prezioak zure neurrira

Eskaintza bereziak

- Garbitzea (xanpu aproposa barne) 3,00 €
- Orraztea 6,00 €
- Emakumezkoen ile moztea 9,60 €
- Gizonezkoendako sorta 11,40 €
  (garbitzea, moztea, lehortzea edo fijatzea)
- Kolorea 12,60 €
- Metxak (zilarrezko papera) 20,45 €
- Moldeagailua 23,45 €

Astelehenetik zapatura 09:30etatik 19:30etara.

Edertasun kabinak

Tratamenduak

Eguzki dutxa

L'ORÉAL PROFESSIONNEL PARIS

GERMAINE DE CAPUCCINI

Goienka 2a

Egubakoitza / 2002ko martxoaren 15a

Kultura eta aisialdia

Martxoaren 15etik 22ra

Sexualitatea eta hezkuntza

Aita-amek eta hezitzaileek hobeto hezten ikasteko eta umeekin eta gazteekin zelan jokatu ikasteko aukera eskaintzen digute bi berbaldik

Datorren astean, guraso-endako eta hezitzaileen-dako berbaldi bi izango dira Debagoienean: Antzuolan bata, Oñatin bestea. Aitzakia ona dugu horixe sexualitatea-ren gainean zer dakigun eta, batez ere, seme-alabak zelan hezten ari garen geure buruari galdetzeko.

Nahiz eta gehienok uste dugun hezkuntza moduak asko hobetu direla sexua isilpean gordetzen zenetik hona, eredu horiek ez dira horrenbeste aldatu. Deba-goienean lanean ibili diren sexologoek hala esan dute. "Sexuak tabu izaten jarrai-tzen du", komentatu digute; bai familian bai eta lagun artean ere, nahiz eta gaztetxo gehienek lagunartea izan informa-zio iturri nagusia oraindik ere.

Sexuaz berbarik ez egitea izaten da guraso askoren jarrera, konturatu gabe horrela ere sexualitateaz hezten ari direla seme-alabak.

AZALA: GOIO ARANA / OINARRIZKO MARRAZKIA: ERIKA

HEZKUNTZA/ SEXUALITATEAREN GAINEKO HITZALDIAK DEBAGOIENEAN

Sexualitateaz zelan hezi ikasi

SEXUALITATEAREN GAINEKO HEZKUNTZARI DAGOKIONEZ, UMEEK ETA GAZTETXOEK, BAITA GURASOEK ERE, BADUTE ZER IKASI

Egunotan, sexualitatearen eta hezkuntzaren gaineko bi hitzaldi izango dira: eguaztenean. Amaia Vázquez psikologoak zazpi eta hamabi urte arteko umeen gurasoendako berbaldia egingo du, Antzuolan; hurrengo egunean, Eli Moreno adituak jardungo du, Oñatin.

Eguaztenean, zazpi urte arteko umeen aita-amendako hitzaldia egin zuen Amaia Vázquez adituak, Antzuolan. Bi kasuetan ere, ikastetxeren batekin lankidetzan egindako hitzaldiak dira, gurasoei informazioa emateko helburuarekin. Argi dago, hortaz, sexualitatearen gainean beti dagoela zer ikasi. Eta ez bakarrik hezten ari diren umeek eta gaztetxoek, baita euren aita-amek ere. Dirudienez, horiek ikasi behar dutena da seme-alabak sexualitatearen inguruan zelan hezi.

ARRASATE PRESS

Gero eta sarriago antolatzen dira mahai inguruak, hiltzaldiak eta bestelako saio informatiboak sexologiaren inguruan.

ORAINDIK, GAI DEBEKATUA

Gauzak ez dira hainbeste aldatu umeek eta gazteek sexuaren inguruko hezkuntza lagunartean egiten zuteneko garaietatik hona. Galdetu diegun adituen ustez, gaur egun ere, gaztetxoen erreferente nagusia euren adineko jendea da, eta sexuaren gai jakin batzuez berba egitea gauza debekatu bezala ikusten dute askok oraindik familiartean.

Gure adituen ustez, hezkuntza jarrera hori ez da egokiena, hori ere sexualitateaz hezteko modu bat delako, eta hori txikitatik sumatzen dutelako seme-alabek: "Umeek ikusten badute gurasoek lasai berba egiten dutela plazerraren gainean, elkarren artean erakarri egiten direla eta hori adierazten dutela, era baten ulertuko dute sexualitatea. Baina gaia aipatu ere ez bada egiten, umeek barneratzen dutena da gai hori sekretua dela, intimoa dela, debekatua dagoela", dio Amaia Vázquez psikologo eta sexologoak. Gakoa da, izaki sexuatuak garen neurrian, bizitza osoan ari garela alderdi horretan hezten.

HEZKUNTZA, BIZITZA OSOAN

Hezkuntza eredu horien eraginez, hainbat "hutsune" dituzte gaur egungo gaztetxoek. "Eurendako, sexua koitoa da, harreman heterosexual baten barnean", dio Eli Moreno adituak. Baina horren errua ez ei da hezitzaileena bakarrik: "Eredu bakar hori bultzatzen du gizarteak: eredu koitala", diote Arrasateko Sexologia Zerbitzuko arduradunek.

Debagoienean hitzaldiak egin eta informazioa ematen ari diren adituen ustez, hezkuntza egoki baterako bidea da "konturatzea hezkuntza hori beti dagoela, nahiz eta hainbat gauza isilpean gorde", eta horrez gain, galderak egiten dutenean, umeei egia esan. Hori ei da garrantzitsuena.

LEIRE KORTABARRIA

Arrasateko kasua

Arrasateko Udalak Sexu Informazio Zerbitzua jarri zuen abian 1996ko urrian, Biteri etorbideko egoitza baten. Arrasateko emakume feminista talde baten ekimenez zabaldu zuten, beste talde batzuen babesarekin, eta gizartean sumatzen zuten eskaera bati erantzuteko. Ekintza aitzindaria izan da, ez bakarrik Euskal Herrian; estatu osoan udal batek abian jarritako eta hasieratik zabalik jarraitu duen sexologia zerbitzu baten oso eredu gutxi dago. Ereduak ondo funtzionatu du hasieratik: urtebeterako proiektu pilotu moduan abiarazi zuten, eta dagoeneko bosgarren urtea bete du Arrasateko Sexologia Zerbitzuak. Ana Oiartzun eta Maitena Zubia psikologo eta sexologoek dihardute zerbitzuan lanean.

Hainbat helburu betetzeko jaio zen zerbitzu hori. Alde batetik, astean bi egunean, Anak eta Maitenak informazio bila doakien jendea hartzen dute bulegoan bertan, edo telefonoz egiten dizkieten kontsultak atenditzen dituzte. Bestetik, sentsibilizazio kanpainak, hitzaldiak, kultura ekintzak –betiere, sexu hezkuntzarekin zerikusia dutenean–, mahai inguruak, bideo forumak... antolatzen dituzte. "Egiten dizkiguten galderen arabera eta jendeak agertzen duen interesaren arabera, kanpaina bat edo bestea antolatzen dugu", azaldu dute arduradunek.

Jendeak erreparoak izaten jarraitzen ei du sexuaz berba egiteko orduan: "Gehienbat, antisorgailuen inguruko galderak egiten dizkigute; baina hori, askotan, beste gai batzuez berba egiteko sarbidea izaten da", diote Anak eta Maitenak. Horrek jasotako hezkuntzarekin zerikusia du: "Sexu hezkuntza beti egiten da: gauzak isilperatzen, jarrera jakin bat transmitituaz... Lehenengo, konturatu beharra dago zein balio eta jarrera transmititzen dugun, hortik aurrera egin ahal izateko".

ELI MORENO / SEXOLOGOA

"Gaztetxoen artean, sexuak tabu izaten jarraitzen du"

Eli Moreno sexologo elgoibartarrak ikastetxeen sexualitate ikastaroetan parte hartzen du, eta hitzaldiak egiten ditu ikasle eta gurasoendako. Datorren eguenean, *Heziketa afektibo sexuala* hitzaldia egingo du Oñatin.

Zein jarrera izaten dute ikasleek sexualitate ikastaroetan?

Oñatin, adibidez, 14 eta 16 urte arteko gaztetxoekin egin dugu lan. Oso-oso urduri egoten dira, hori alde batetik; bestetik, nabaria da informazio ugari dutela, baina informazio onarekin batera, informazio txarra ere jasotzen dute.

Zeintzuk dira gaztetxoen informazio iturri nagusiak?

Alde batetik, komunikabideak; bestetik, lagunartea. Euren eredua lagunak dira, ez aita-amak, ez eta irakasleak ere. Hori dela-eta nahasten dira informazio zuzena eta okerra, eta gure lana, gehiago irakastea baino, dakitena kokatzen joatea izaten da, eta kontraesanak argitu. Sexuak tabu izaten jarraitzen du, ez dute euren artean berbarik egiten eta kezkak eurendako gordetzen dituzte.

Zein alderditan sumatzen dira kontraesan gehien?

Kontraste handiak daude. Adibidez, hilerokoaren inguruan jakin beharreko guztiak badakizkite eta sumatzen da gai horretaz berba egin dutela familian. Baina plazerrari dagokionez, ez da hori gertatzen. Esate baterako, gehienek badakite emakumeon plazer organoa klitoria dela, baina uste dute emakumeak masturbatzeko baginatik zerbait sartu beharra duela... Argi ikusten da plazerraren gaia ez dutela hainbeste landu. Bestalde, eredu bakarra dute: koitoa eta bikote heterosexuala, hain zuzen ere. Hortaz, sexu jokabide asko kanpoan uzten dituzte.

Eli Moreno.

Zure ustez, sexualitatearen gaineko hezkuntzan zeinek du ardura handiena?

Nire ustez, aita-amen, irakasleen, sexologoen... arteko lan bateratua izan behar da sexuaren inguruko hezkuntza. Bizitza osoan landu beharreko gaia da sexualitatea, jaiotzetik hil arte garelako izaki sexuatuak.

MUSIKA/ SEÑOR NO ETA NUEVO CATECISMO CATÓLICO ARITU ZIREN ARRASATEKO GAZTETXEAN

Punk-rock emanaldi itzela

SEÑOR NO ETA NUEVO CATECISMO CATÓLICO DONOSTIARREK SASOI ONEAN DAUDELA ERAKUTSI ZUTEN

Tokia: Arrasate. **Aretoa:** Gaztetxea. **Jendea:** 500 bat lagun. **Taulan:** Señor No eta Nuevo Catecismo Católico taldeak. **Antolatzailea:** Arrasateko Gazte Alternatiboen Kofradia Organizatua (AGAKO)

IKER BARANDIARAN

Une bereziak izan ziren egubakoitz gaueko kontzertu arrakastatsuan. Irudian, Señor No taldearen emanaldiko une bat.

Egubakoitzeko kontzertua ez zen edonolako izan, eta aurreikuspen guztiak bete ziren. Señor Nok eta Nuevo Catecismok disko berriak aurkeztu eta jende pila bildu zuten.

Bi taldeek, Señor No-k eta Nuevo Catecismo Católico-k, jarraitzaile askotxo dituzte ibarrean, eta kanpotik ere jende dezente etorriko zenaren susmoa bete egin zen. Are gehiago, azken hilabeteotan, Nuevo Catecismo Católico talde donostiarreko partaideek euren azkeneko diskoa, *Scarred for life* izenekoa, aurkezten gogor dihardute. Eta bestalde, Señor No-koek, donostiarrak hauek ere, oraindik kaleratu ez duten *Siempre te diré que no* diskoaren kantuak estreinakoz jo zituzten gau hartan.

JENDE PILOA PUNK-ROCKA ENTZUTERA

Aipatutako arrazoiengatik, Gaztetxera jende andana sartzen hasi zen eta hamaiketarako, Nuevo Catecismo Católico hasi zenerako, jende mordoska zegoen Gaztetxe barnean. NCC oso sasoi onean daude: punk-rock-aren eta rock-n-roll-aren arteko ildoa egiten jarraitzen dute, eta Enekok, abeslari berriak, bizitasun handiagoa ematen die euren zuzenekoei. Horrez gain, abendutik Euskal Herriko eta baita Espainiako herri eta hiri garrantzitsuenetan euren disko berria aurkezten aritu dira, eta hori nabari da. Arrasaten ere gogor aritu ziren, ingelesez abestutako kantu berriak eta zaharragoak, gaztelaniazkoak, tartekatuz. Jendea, ordea, hotz samar egon zen, eta taldekideek ikusleak xaxatzeko ahaleginak egin zituzten.

Atsedenaren ondoren, azarotik kontzerturik eman barik zeuden Señor No taularatu ziren. Disko berria aurkeztera etorri eta lan horretako kantuetan oinarritu zuten emanaldi beroa. Hauek ere sasoi oso onean ikusi genituen eta ikusleek ondo hartu zituzten abesti berriak.

TALDE BORTITZ ETA GARRATZA

Señor No-koak ere ez dira askorik aldatu. MC5, Motörhead eta euren izaera propioa koktelera baten nahastuz gero, talde bortitz eta garratz horren soinua da irtengo litzatekeena. Ordu bete inguruko emanaldia eskaini ondoren, ikusleek bis-ak eskatu zituzten eta Comando 9 mm. taldearen *Amor en el frenopático* kantua eskaini ziguten perla gisa.

Egun Estatuan dauden punk-rock eta rock-n-roll-aren talde hobeenetarikoak ikusteko aukera izan zen Arrasaten.

IKER BARANDIARAN

NIREAUKERA

'13,99 EUROS' Frédéric Beigbeder

Frédéric Beigbeder frantziarrak publizitatean egiten zuen lan, eta mundu horretaz egiten du berba bere nobela horrek. Eleberriko protagonista publizitatean lan egiten duen yuppie bat da, eta protagonista hori ere nobela bat idazten aurkezten digu egileak. Beigbederrek hankaz gora ipintzen du multinazional handien inguruan egiten den publizitatearen eta bertan lan egiten dutenen mundua. Marka ezagun askoren gaineko komentarioak ere egiten ditu, eta horien inguruko exekutiboak ere ez ditu oso leku onean uzten! Fikziozko kontakizuna da, baina errealitatearen berba egiten duela oso begi bistakoa da.
/L.K.

Jabier Erostarbe

Oñatiarra, 38 urte, ilustratzailea. Hainbat enpresa eta talderendako egiten du lan.

KALERATUBERRIAK/ Leire Kortabarria

LIBURUA / Gida

KOMUNIKAZIOAREN GIDALIBURUA

Eusko Jaurlaritza
Eusko Jaurlaritza arg.
431 orrialde
Doanekoa

Urtero moduan, Eusko Jaurlaritzak *Komunikazioaren Gidaliburua* argitaratu du. Liburu mardula eta datu erabilgarriz betea. Erakunde politiko, industria arloko elkarte, hezkuntza erakunde, Euskal Herriko eta kanpoko komunikabide... askorekin harremanetan jartzeko telefono eta fax zenbaki, helbide, helbide elektroniko eta arduradunen izenak ematen ditu, besteak beste. Hainbat bilaketa mota egiteko moduko aurkibideak eskaintzen ditu. Berritasun moduan, txartel formatuko CD-ROMarekin batera argitaratu da aurtengo gida.

ALDIZKARIA / Zabalik

ZABALIK

Zabalik
Zabalik 2000
32 orrialde
1,5 euro

Lehendik ere ezagutzen genuen *Zabalik* aldizkaria, baina aurpegi berriarekin aurkeztu digute orain bere arduradunek. Egubakoitzero argitaratuko dute, eta, lehen ez bezala, aldizkari formatu eta paperean.

Zabalik astekariaren helburu nagusia da, egunez eguneko albisteen kontakizuna egitea baino areago, elkarrizketak eta erreportajeak eskaintzea. Horrez gain, denboraldi honetan, hainbat gairen inguruko gehigarriak ere prestatuko dituzte. Bestalde, *Zirrikitua* izeneko gehigarria Interneten argitaratzeko asmoa ere azaldu dute.

DISKOA / Bilduma

100% COLLÈGUES

Collègues
AlterMetak
13 abesti estudioan
15 abesti zuzenean

Zigilu berria sortu du Metak argitaletxeak: AlterMetak, hau da, beste Metak, Euskal Herritik kanpo egiten diren lanak hemen ezagutzera eman ahal izateko. Eta zigilu horren aurkezpen lan moduan, Frantzian izen handiko musikariek -Zebda taldeko Hakim eta Mustapha Amokrane-k, Bernardo Sandoval-ek... osatzen duten Collègues taldearen lanen bilduma bat prestatu dute. Zapore etniko nabarmena dute estudioan zein zuzenean grabatutako abesti horiek; Europako eta Afrikako tradizioak jaso eta gaur eguneko kutsua ematen diete.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2002ko martxoaren 15a

Martxoa: 15-22

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

ANTZERKIA

ARAMAIO

► ***Komeriz komeri*** antzerki-lana eskainiko du Horratx taldeak datorren zapatuan, hilaren 23an, kultura etxean, 22:00etan.

ELGETA

► ***Trainspotting*** antzerki-lana eskainiko du Juanlu Escuderok gaur gaztetxean, 22:00etan.

ESKORIATZA

► ***Modelo klowntrapublizitarioa*** antzerki-lana jokatuko du Oihulari Klown taldeak gaur, egubakoitza, unibertsitateko aretoan, 22:30ean.

► **Umeendako ikuskizuna** eskainiko du Txamuskiña taldeak eguenean, martxoaren 21ean, Luis Ezeiza Ikastetxean, 17:00etan.

DEIAK

ANTZUOLA

► **Arrolak urteko batzarra** egingo du martxoaren 20an Olaran etxean, 19:00etan. Segidan, Jose Ramon Agirreren *Mongolia, Estepako taupadak* ikus-entzutekoa izango da.

► ***Nola hitzegin sexualitateaz gure seme-alabekin?*** hitzaldia egingo du Amaia Vázquez adituak eguaztenean. Zazpi eta hamabi urte arteko umeen gurasoendako. Eskolako aretoan izango da, 18:30ean.

ARETXABALETA

► **Euskal Herrian Euskaraz taldeak euskararen ofizialtasuna eskatzeko** prentsaurrekoa egingo du gaur, egubakoitza, Loramendiren egoitzan, 18:30ean.

ARRASATE

► ***Zer egin euskaraz hobeto egin dezaten?*** hitzaldia egingo du eguenean Uri Ruiz Bikandik. Institutuko aretoan izango da, 17:00etan.

BERGARA

► **Aritxulegira eta San Martzialera** mendi irteera antolatu du Pol-Pol mendizale taldeak domekarako, martxoaren 17rako. 07:00etan elkartuko dira, frontoian. Txartelak salgai daude Pol-Pol tabernan.

► **Batasunak bere Herri Batzarra egingo du** eguaztenean, hilaren 20an, Elementaleko aretoan, 19:00etan.

ESKORIATZA

► **Batasunak bere bake proposamena aurkezteko hitzaldia** egingo du eguenean, martxoaren 21ean, kultura etxean, 18:30ean.

OÑATI

► ***Pangea, bidaia kontinenteen hondora: Europa, Asia, Afrika*** emanaldia eta hitzaldia egingo dute Josu Iztuetak eta Ander Izagirrek gaur Santa Ana antzokian, 19:30ean, Aloña Mendiren Mendi Astearen barruan.

► ***Heziketa afektibo-sexuala*** hitzaldia egingo du Eli Moreno sexologoak eguenean, hilaren 21ean, Txantxiku ikastolan, 18:30ean.

► **Ingelesa eta frantsesa ikasteko hainbat programa** antolatu ditu Txantxiku ikastolak, Ikastolen Elkartearen eskutik. Argibideetarako, deitu 943 78 12 04 telefonora.

MUSIKA

ARRASATE

► **Arrasate Musikaleko Bandak** emanaldia egingo du bihar, zapatua, Amaia Udal Antzokian, 19:30ean.

► **Once Varas** flamenko fusio taldearen kontzertua izango da bihar, zapatua, Otalora kaleko Gambrinus tabernan, 00:00etan.

BERGARA

► **Los Enemigos** taldeak kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan.

► **Kean eta Neu** taldeen emanaldia izango da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean, Buenavista 5001 biraren barruan.

► **Angra eta Silent Force** taldeen emanaldia izango da bihar, zapatua, Jam aretoan, 20:00etatik aurrera.

► **Hard-Ons, Rockzilla eta Gaizkiñe** taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatuan gaztetxean, 22:30ean.

IKASTAROAK

ARETXABALETA

► **Yoga ikastaroa** abiaraziko du Zainduz osasun eta *fitness* zentroak. Martxotik aurrera izango da, martitzenetan eta egubakoitzetan, 19:00etatik 20:30era. Argibideetarako, deitu 943 71 27 92 telefonora.

BERGARA

► **Zortzi eta hamalau urte arteko ume eta gaztetxoendako antzerki ikastaroa** antolatu du Virago antzerki taldeak, apirilaren 6tik ekainaren 22ra arte. Izena emateko, jo kultura etxera edo deitu 943 77 91 59 telefonora.

► **Langabeendako Argiketari Industrial** ikastaroa antolatu du udalak. Parte hartzeko baldintzak: adinez nagusia eta langabea izatea. Argibideetarako, jo Bergarako Udaleko Enplegu Zerbitzura.

LEHIAKETAK

BERGARA

► **Mendekoste jaietarako kartel lehiaketa** deitu du Udaleko Jai batzordeak. Kultura etxean aurkeztu behar dira lanak, eguaztenera arte.

EIBAR

► **Gazteen XVII. Eibarko Hiria ipuin lehiaketa** antolatu du Eibarko Udalak. 14 eta 25 urte arteko gazteendako. Argibideak: 943 70 71 53 edo 943 20 68 45.

EUSKAL HERRIA

► **Kimetz Emakumeen Kultura eta Gizarte Taldeak VIII. kontakizun lehiaketa** antolatu du. Apirilaren 15a

► POP-PUNK KONTZERTUA

HARD-ONS, ROCKZILLA ETA GAIZKIÑE

Hard-Ons, pop punk musikaren goreneko taldeetako batek, bisita egingo digu zapatuan. Bergarako gaztetxean izango dugu. Australiako talde horren ibilbidea ez da makala, duela hamazortzi urte sortu zuten. Badirudi Blackie-k, taldeko kideetako batek, Sex Pistols taldea telebistan ikustearen ondorio dela Hard-Ons, orduantxe aurkitu baitzuen punk musika. Gaur egun hogeita hamar urteak ondo beteta dituzte Hard-Ons taldeko hiru kideek, baina iturri beretik edaten jarraitzen dute, eta hori nabaria da kaleratu duten azken lanean, *This Terrible Place* diskoan. Beroi aurkeztuko dute Bergaran.

Non: Bergarako gaztetxean. **Noiz:** Zapatuan, hilak 16. **Ordua:** 22:30ean. **Sarrera:** 6 euro.

UDALTZAINAK

Arrasateko Udalak lan-poltsa bat sortu nahi du, berehala, hainbat **UDALTZAIN** plaza hornitzeko funtzionario interinoen izaeraz.

Baldintzak:
• Eskola graduatua, LH1, Batxillerra edo baliokidea.
• Gidatzeko B1 baimena

Aurkezteko epea: 2002-03-16tik 2002-03-25era arte.

Oinarriak: Udaletxean jaso daitezke edo web orrian *(www.arrasate-mondragon.net)*

ARRASATEKO UDALA — **Pertsonal Saila**

Azken etxebizitzak VILLANUAN!

Astun eta Candanchu eski estazioen eta Jaka herriaren artean.

Logela bi, komuna, sukaldea (jantzita), egongela.

Prezio interesgarria!

IZARRAITZ INMOBILIARIA

HIPER EROSKI ZENTROA
Tel./Faxa : 943 79 98 60
mondragon@izarraitz.com
ARRASATE
Zapatuetan egun osoan zabalik

OÑATI ABESBATZA, DONOSTIAN

Donostiako Karmelo Ikastetxeko aretoan kontzertua eskainiko du bihar Oñati Abesbatzak. 20:00etan izango da. Peñaflorida, Haendel, Aita Madina, Bortniasky, Lesbordes, Olaetxea, Mozart... eta beste hainbat konpositoreren lanak abestuko dituzte.

Sarrera doan
LEHIAKETA

OSKORRI
ARRASATEko
Amaia Udal Antzokian

Nola du izena talderaren azken diskoak?

Deitu, eta erantzun zuzenen artean, **Arrasaten martxoaren 23an** (zapatua) egingo duten kontzertura joateko **4 SARRERA** zozkatuko ditugu.

Deitu martxoaren 19ko (martitzena) 18:00ak baino lehenago.

943 79 21 00

baino lehenago aurkeztu beharko dira lanok, honako helbidean: Barrena kultura etxea, Nikolas Lekuona plaza z/g, Ordizia.

ERAKUSKETAK

ANTZUOLA

► **Argizaiol erakusketa** ikusteko aukera Olaran etxean bihar eta etzi: 12:00-14:00 eta 19:00-20:30.

OÑATI

► ***Pangea, bidaia kontinenteen hondora*** erakusketa ikusteko azken eguna duzue gaur, egubakoitza. Santa Ana antzokian, 19:00etatik 21:00etara.

BIDEOA

BERGARA

► ***Senderos de gloria*** filmaren emanaldia izango da domekan, hilaren 17an, gaztetxean, 18:00etan.

ESKORIATZA

► **Bideo foruma izango da** gaur, egubakoitza, Ana Larrieta psikologoarekin. Kultura etxean, 18:30ean.

JAIAK

ELGETA

► **Umeen eguna** antolatu du gaztetxeak biharko, zapatua. Mendi irteera, bazkaria eta jolasak izango dira egun osoan barrena.

Zinema

ARRASATE

■ ALAI ZINEMA

Black Hawk derribado
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 17:00, 19:30, 22:00.

The Hole
Martitzena: 17:00, 19:30, 22:00.
Eguaztena: 19:00, 21:30.

■ AMAIA ANTZOKIA

Intimidad
Eguena, zinekluba: 21:30.

BERGARA

■ NOVEDADES

El hijo de la novia
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 22:30.
Martitzena: 17:00, 19:30, 22:15.

Kandahar
Eguena, zinekluba: 20:00.

OÑATI

■ SANTA ANA

Ocean's eleven
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.

The Hole
Astelehena: 19:30.
Martitzena: 19:30, 22:30.

Lagundu! Arraina naiz
Zapatua eta domeka: 17:00.

La pianista
Eguena, zinekluba: 20:00.

EIBAR

■ UNZAGA

Desde el infierno
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:00, 22:15.
Martitzena: 19:00, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

■ RIALTO

La última profecía
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

GASTEIZ

■ GURIDI

Desde el infierno
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Hable con ella
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Rollerball
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

La ciudad sin límites
Egubakoitzetik zapatura: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Una mente maravillosa
Egubakoitza eta zapatua: 17:00,19:45, 22:30, 01:00.
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

La última profecía
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

Gosford park
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

■ MIKELDI ZINEMAK

Peter Pan
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:45.
Zapatutik martitzenera: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45.

Monstruos S.A.
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:45.
Zapatutik martitzenera: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45.

Atando cabos
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

El señor de los anillos
Egunero: 19:15, 22:30.

Hable con ella
Egunero: 17:15, 20:00, 22:45.

Sexy Beast
Egunero: 17:00.

Gosford Park
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

Una mente maravillosa
Egunero: 17:15, 20:00, 22:45.

Bones
Egunero: 17:15, 20:00, 22:45.

Amelie
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.
Martitzena, ikuslearen eguna.

■ FLORIDA-GURIDI

Yo soy Sam
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:30, 00:00.
Egunero: 17:30, 20:30.

El hijo de la novia
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

En la habitación
Egubakoitza eta zapatua: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Egunero: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30.

Lantana
Egunero: 17:00.

Moulin rouge
Egubakoitza eta zapatua: 20:30, 00:00.
Egunero: 20:30.

Piedras
Egunero: 20:30.

El señor de los anillos
Egunero: 17:00.

Black Hawk derribado
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:30, 00:00.
Egunero: 17:30, 20:30.

Mulholland drive
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:30, 00:00.
Egunero: 17:30, 20:30.

■ STER ZINEMAK

Peter Pan
Egubakoitza: 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.
Zapatua: 12:40, 16:20, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.
Domeka: 12:40, 16:20, 18:00, 20:00, 22:00.

Yo soy Sam
Egubakoitza: 17:30, 20:10, 22:50, 01:30.
Zapatua: 12:05, 17:30, 20:10, 22:50, 01:30.
Domeka: 12:05, 17:30, 20:10, 22:50.

Hable con ella
Egubakoitza: 18:10, 20:30, 23:00, 01:20.
Zapatua: 12:10, 15:50, 18:10, 20:30, 23:00, 01:20.
Domeka: 12:10, 15:50, 18:10, 20:30, 23:00.

Desde el infierno
Egubakoitza: 17:55, 20:20.
Zapatua eta domeka: 12:15, 17:55, 20:20.

Última sospecha
Egubakoitza: 17:55, 20:20.
Zapatua eta domeka: 12:15, 17:55, 20:20.

Una mente maravillosa
Egubakoitza: 17:45, 20:20, 22:55, 01:30.
Zapatua: 12:20, 17:45, 20:20, 22:55, 01:30.
Domeka: 12:20, 17:45, 20:20, 22:55.

La última profecía
Egubakoitza: 17:40, 20:15, 22:50, 01:25.
Zapatua: 12:00, 17:40, 20:15, 22:50, 01:25.
Domeka: 12:00, 17:40, 20:15, 22:50.

Monstruos S.A.
Egubakoitza: 17:50, 19:50, 21:50, 00:00.
Zapatua: 12:25, 15:50, 17:50, 19:50, 21:50, 00:00.
Domeka: 12:25, 15:50, 17:50, 19:50, 21:50.

Rollerball
Egubakoitza eta zapatua: 22:45, 01:00.
Domeka: 22:45.

Flubber y el profesor chiflado
Zapatua eta domeka: 12:30, 15:50.

■ YELMO CINEPLEX

Mulholland drive
Egubakoitza, zapatua eta astelehena: 17:50, 21:15, 00:10.
Domeka eta martitzena: 17:50, 21:15.

En tierra de nadie
Egubakoitza, zapatua eta astelehena: 22:55, 00:50.
Domeka eta martitzena: 22:55.

Black Hawk derribado
Egubakoitza, zapatua eta astelehena: 18:15, 21:15, 00:15.
Domeka eta martitzena: 18:15, 21:15.

Atando cabos
Egubakoitza eta astelehena: 15:45, 17:55, 20:00, 22:25, 00:40.
Zapatua: 12:10, 15:45, 17:55, 20:00, 22:25, 00:40.
Domeka: 12:10, 15:45, 17:55, 20:00, 22:25.

Última sospecha
Egubakoitza, astelehena eta martitzena: 15:55.
Zapatua eta domeka: 12:30, 15:55.

El señor de los anillos
Egubakoitza, astelehena eta martitzena: 15:30, 19:00.
Zapatua eta domeka: 11:30, 15:30, 19:00.

Monstruos S.A.
Egubakoitza eta astelehena: 16:00, 18:05, 20:15, 22:40, 00:45.
Zapatua: 12:15, 16:00, 18:05, 20:15, 22:40, 00:45.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:05, 20:15, 22:40.
Martitzena: 16:00, 18:05, 20:15, 22:40.

Hable con ella
Egubakoitza eta astelehena: 15:40, 17:55, 20:20, 22:45, 00:55.
Zapatua: 11:50, 15:40, 17:55, 20:20, 22:45, 00:55.
Domeka: 11:50, 15:40, 17:55, 20:20, 22:45.
Martitzena: 15:40, 17:55, 20:20, 22:45.

Amelie
Egubakoitza, astelehena eta martitzena: 15:25, 17:40, 19:55.
Zapatua eta domeka: 12:05, 15:25, 17:40, 19:55.

Desde el infierno
Egubakoitza eta astelehena: 15:25, 17:45, 20:10, 22:35, 00:55.
Zapatua: 12:10, 15:25, 17:45, 20:10, 22:35, 00:55.
Domeka: 12:10, 15:25, 17:45, 20:10, 22:35.
Martitzena: 15:25, 17:45, 20:10, 22:35.

Amor ciego
Egubakoitza: 15:20, 17:35, 19:55.
Zapatua eta domeka: 12:10, 15:20, 17:35, 19:55.

La última profecía
Egubakoitza eta astelehena: 15:20, 17:40, 20:10, 22:35, 00:55.
Zapatua: 11:55, 15:20, 17:40, 20:10, 22:35, 00:55.
Domeka: 11:55, 15:20, 17:40, 20:10, 22:35.
Martitzena: 15:20, 17:40, 20:10, 22:35.

Ocean's eleven
Egubakoitza eta astelehena: 15:25, 17:45, 20:05, 22:30, 00:50.
Zapatua: 12:15, 15:25, 17:45, 20:05, 22:30, 00:50.
Domeka: 12:15, 15:25, 17:45, 20:05, 22:30, 00:50.
Martitzena: 15:25, 17:45, 20:05, 22:30.

En la habitación
Egubakoitza eta astelehena: 15:35, 18:15, 21:15, 00:15.
Zapatua: 11:35, 15:35, 18:15, 21:15, 00:15.
Domeka: 11:35, 15:35, 18:15, 21:15.
Martitzena: 15:35, 18:15, 21:15.

Kirikú y la bruja
Egubakoitza, astelehena eta martitzena: 16:05.
Zapatua eta domeka: 12:30, 16:05.

Moulin rouge
Egubakoitza, zapatua eta astelehena: 22:15, 00:45.
Domeka eta martitzena: 22:15.

Daño colateral
Egubakoitza, astelehena eta martitzena: 16:10, 18:20, 20:35.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:10, 18:20, 20:35.

Peter Pan
Egubakoitza eta astelehena: 15:50, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.
Zapatua: 12:00, 15:50, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.
Domeka: 12:00, 15:50, 18:00, 20:00, 22:00.
Martitzena: 15:50, 18:00, 20:00, 22:00.

Rollerball
Egubakoitza eta astelehena: 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.
Zapatua: 11:40, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.
Domeka: 11:40, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30.
Martitzena: 16:00, 18:10, 20:20, 22:30.

Bones
Egubakoitza, zapatua eta astelehena: 22:25, 00:30.
Domeka eta martitzena: 22:25.

Astelehena, ikuslearen eguna.

Intimidad: ●●●●● / ***Moulin Rouge:*** ●●●● / ***Amelie:*** ●●●● / ***La pianista:*** ●●● / ***Una mente maravillosa:*** ●●● / ***Ocean's eleven:*** ●●● / ***El Señor de los Anillos:*** ●●● /

TXARRA:● ESKASA:●● BALEKOA:●●● ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

MONSTRUOS S.A.

PUNTUAZIOA: ●●●●

ZUZENDARIA: Peter Docter.
AKTOREAK: Marrazki bizidunak.

Gaur, tarte bat egingo diegu marrazki bizidunez egindako filmei. Walt Disney jaunak sortutako konpainiak urte mordoa daramatza merkatuan lan bikainak egiten. Azkeneko urteetan, baina, beste konpainia batzuk sartu dira lehian. Horien artean, Steven Spielbergen DreamWorks konpainiak *El príncipe de Egipto* edo *Shrek* filmak egin ditu. Eta lehia horrek eragin du marrazki bizidunez egindako filmak teknikoki gero eta zainduagoak eta gero eta perfektuagoak izatea.

Monstruos S.A. filma Pixar estudioak egin du. Pixar, *Toy Story*-ren bi zatien egilea, Disneyren estudio filiala da, eta Disneyren film klasikoekin konparatuta, kutsu modernoagoa eta jolastariagoa du. Estudioak erabilitako formula klasikoa literaturako ipuin eta eleberri famatuetan oinarritzen zen: *Edurne Zuri, Pinotxo,* eta abar. Ondorioz, sortutako oinarri dramatikoa oso sendoa zen. Horri gehituz gero kontatzeko trebetasun handia, zati ilunen eta beldurgarrien erabilera trebea, eta oso abesti politak, Disneyren film zoragarri bat izango dugu. Konpainiak azkeneko urteetan formula horrekin jarraitu du –*El jorobado de Notre-Dame, La Bella y la Bestia,* eta abar–, baina melodraman baino gehiago, komedian finkatutako beste produktu batzuk atera ditu. Horren adibide dugu *Monstruos S.A.*

Filmaren gidoia originala da, hau da, ez dago liburuetan oinarrituta. Istorioa nahiko sinplea da. Laburragoa da, baina itxura eroagoa eta arinagoa ematen dizkio filmari: *Bugs Bunny*-ren bost minutuko marrazki bizidunen (Cartoons) eta zinema mutuko komedien erritmoa gogorarazten dute. Horregatik, pieza txikiez osatutako filma da eta, agian, kontatzen duen istoriorako apur bat luzatua dago. Teknikoki, irudiek lortzen dituzten bolumen eta sakontasun sentsazioak harrigarriak dira. Filmaren bukaeran ateen biltegian gertatzen den pertsekuzioa benetan zoragarria eta ezin hobea da.

Aipatzekoa da Pixar estudioak egindako komedia ikusgarria: teknikoki oso ondo eginda, erritmoarekin eta musika atseginarekin. Oso gomendagarria da, era berean, filmaren aurretik eskaintzen duten film labur barregarria, Pixar estudioak berak egina.

ANTONIO ZABALA

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Olarte kalean 66 m²-ko etxebizitza salgai. Jantzita. Bi logela, igogailua, ganbara… Deitu 20:00etatik 22:00etara. 676 67 45 72.

Eskoriatza. Etxebizitza berria salgai. Bi logela, sukaldea, bainugela eta egongela. 943 71 43 95 edo 656 76 52 20.

Angiozar. Etxebizitza salgai, garaje eta guzti. Berogailua ere badu. 943 76 12 01 edo 652 75 55 13.

Arrasate. Erdialdean etxebizitza salgai. Hiru logela. 943 79 48 97.

Eskoriatza. Etxebizitza garajearekin salgai. 92 m². Hiru gela, bi komun jantzita, garaje bikoitza, ganbara… 605 77 35 14.

Arrasate. Zigarrolan etxebizitza salgai. Bi logela eta sukaldea jantzita. 696 73 01 76.

Arrasate. San Andresko Bañez doktorea kalean etxebizitza salgai. 943 79 51 88.

Aretxabaleta. Belorrietan etxebizitza eta garajea salgai. 655 71 90 86 edo 943 79 98 99.

Arrasate. Meatzerrekan txaleta salgai. 943 79 70 25.

Arrasate. Erdiko Kalen etxebizitza salgai. Merke. 626 71 98 16. 21.00etatik aurrera. Iker.

Arrasate. 100 m²-ko etxebizitza salgai. Duplexa egiteko aukera. Ganbara eta bi autorendako garajea. 652 70 97 79. Gauez deitu.

Arrasate. Ferrerias kalean etxebizitza salgai. Hiru gela, ganbara, berogailua... Berrituta. 656 79 24 35.

Bergara. Etxebizitza salgai. Eguzkitsua. 943 76 52 08.

Arrasate. Santa Marinan 70 m²-ko etxebizitza salgai. Berrituta eta jantzita. 943 79 20 98.

Arrasate. Erguinen etxebizitza salgai. Berrituta. 141.000 euro inguru (23,5 milioi pezeta). 943 79 96 08.

Arrasate. Maalako Errabalean etxebizitza salgai. 73 m². 652 76 25 21.

Bergara. Martoko kalean etxebizitza salgai. Guztiz berrituta eta erdi jantzita. 607 34 20 86. Juan Mari.

Bergara. Etxebizitza salgai. 90 m². Jantzita. Hiru logela, sukaldea, egongela, komuna, garaje indibiduala. 943 79 76 03 edo 652 77 70 71.

Bergara. Etxebizitza salgai Hiru logela, komuna, sukaldea, egongela, igogailua eta kalefakzioa. Garajea eta ganbara. Eguzki begia. 656 70 36 23.

Bergara. Martokon etxebizitza salgai 943 76 07 71.

Leintz Gatzaga. Etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, bi kokum, ganbara… 627 34 84 64.

Arrasate. Agerre kalean etxebizitza salgai. Hiru logela eta egongela. 696 54 21 72.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. San Esteban del Puerto kalean etxebizitza ematen da errentan. Hiru gela, berogailua. Eguzkitsua. 943 77 13 02 edo 943 79 84 57.

Arrasate. Erdialdean etxebizitza ematen da errentan. 617 49 53 39. Deitu aste barruan 18:30etik 20:30era.

Benidorm. Levante hondartzako lehenengo lerroan dagoen apartamentu bat ematen da errentan (Bilbao kalean) .946 80 09 53. Marisol.

Benidorm. Hondartzako lehenengo lerroan dagoen apartamentu bat ematen da errentan uztailetik aurrera. 630 41 84 65.

Arrasate. Erdialdean etxebizitza ematen da errentan. Jantzita. Igogailua du. 943 79 60 88.

Somo (Kantabria). Etxebizitza ematen da errentan hondartzatik 50 metrora. Bi logela, trastelekua, zortzi ohe. Aste Santua, asteburuak, oporrak… 942 33 57 80 edo 630 63 88 93.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Hiru neska ikaslek etxebizitza hartuko lukete errentan. 652 75 68 05.

Arrasate. Etxebizitza hartuko nuke errentan. 943 77 17 17.

105. ETXEAK OSATU

Donostia. Logela bat hartuko nuke errentan. Premiazkoa da. 943 77 17 86.

Eskoriatza. Logela ematen da errentan. Sukaldea erabiltzeko aukera. 943 71 55 01.

Bergara. Etxebizitza konpartitzeko lagun bi behar ditut. 943 76 24 20. Diego.

Etxebizitza osatzeko neska bat behar da. 637 95 19 91.

Arrasate. Apiriletik aurrera etxe bat osatzeko pertsona bat behar da. 659 01 05 84.

Bergara. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Jantzita. 616 33 05 46.

Arrasate. Neska bat behar da pisua osatzeko Zigorrolan. Garbiñe (637 91 41 40) edo Iratxe (616 78 46 70).

Bergara. Logelak ematen dira errentan. Sukaldea erabiltzeko aukera. 699 18 75 68.

Aretxabaleta eta Eskoriatza inguruan logela bat hartuko nuke errentan. 660 04 13 54. Deitu 18:00etatik aurrera.

Arrasate. Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. 655 71 19 97.

Aretxabaleta. Gela bat ematen da errentan. Sukaldea erabiltzeko aukera. 627 64 27 13.

106. DENETARIK

Angiozar. Lursail bi salgai 22 eta 28 urteko intxaurrondoekin. 943 76 12 01 edo 652 75 55 13.

2/ GARAJEAK

201. SALGAI

Arrasate. Uriburu kalean, komunitateko lokal itxi baten bi autorendako garajea salgai. 943 79 67 59.

Arrasate. Txindoki dorrean (San Andres) garajea salgai. 699 16 11 34. Deitu 21:00etatik aurrera. Joxe Mari.

204. ERRENTAN HARTU

Bergara. Erdialdean garajea hartuko nuke errentan. 639 03 43 58.

Oñati. Garajea hartuko nuke errentan Santamaiña edo Moiua kale inguruan. 943 71 60 66.

Bergara, Antzuola edo Oñati inguruan garajea hartuko nuke errentan. Derrigorrez hiru metroko altuera izan behar du. 696 78 05 26.

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Santa Marinan garajea ematen da errentan. 943 76 47 67.

3/ LOKALAK

PABILIOIA EROSI

Antzuolan edo Bergaran 100-150 m²ko PABILIOI INDUSTRIALA EROSIKO NUKE. 616 27 79 99

301. EROSI

